

# **KOOPERATIBISMOAREN SUSTRAIAK I:**

**HERRI SEKTOREEN ELKARTEGINTZA  
PRAKTIKAK**

**IGOR ORTEGA SUNSUNDEGI**





Askatasunarekiko eta lanarekiko maitasuna, aberriarekiko leialtasuna eta sentimendu amatiarra heroien ondare esklusiboa ote dira?

Gizateriaren itzaropena ez ote da oinarritzen jende arruntak ekintza liluragarriak egiteko ahalmenean?"

(Vasili Grossman, Stalingrad)

Andoni Mujikaren oroimenari,  
autoeraketaren gure bide-urratzaileari

Egilea:  
IGOR ORTEGA SUNSUNDEGI  
Mondragon Unibertsitateko  
LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiko ikertzailea

Lehenengo edizioa: 2022ko azaroa  
Lege Gordailua: 01097-2022  
ISBN: 978-84-09-44582-0  
Diseinua: Azk taldea  
Inprimatzailea: Gertu Koop. Elk.



**Aitorpena – Ez komertziala – Berdin partekatu (by-nc-sa):** Ez da onartzen jatorrizko obraren erabilera komertzialik, ezta eratorritako obra ere. Eratorritako obraren banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berberarekin egin behar da.

  
**Mondragon  
Unibertsitatea**  
Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea  
LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

LAN ETA JUSTIZIA  
SAILA  
DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
Y JUSTICIA

6	<b>1. SARRERA</b>
12	<b>2. KAPITALISMOA, INDUSTRIA IRAULTZA ETA XVIII.-XIX. MENDEETAKO ERALDAKETA ERRALDOIA</b>
17	2.1. Kapitalismoaren bereizgarritasuna
21	2.2. Arrazionaltasun kapitalista eta diziplinamendu soziala
26	2.3. Mekanizazioa eta gizarte tradizionalaren oinarrien desegituraketa
32	<b>3. HERRI SEKTOREEN ELKARTEGINTZA PRAKTIKAK</b>
40	<b>4. HASTAPENENKO PRAKTIKA KOOPERATIBOAK</b>
48	<b>5. AZKEN HITZA</b>
52	<b>6. BIBLIOGRAFIA</b>




1

SARRERA



Kooperatibismoa, beraz, sindikalismoaren eta sozialismoaren gizarte ingurune berean jaio zen, garai berean, miseria proletario eta zapalkuntza beretik, izpiritu beraren bulkadapean. Bizitzaren asmo sakonak eta ikuskera bera adierazten ditu”.

(Georges Laserre, 1972)



## 1. SARRERA

Kooperatibismoa noiz eta non hasi zen zehaztea ez da erraza. Izan ere, sozialismoa, anarkismoa, liberalismoa eta halako ideologia nagusien aldean, kooperatibismoaren sorrera ez da pentsalari zehatz bati lot dakioken proposamen teoriko bat. Lotura hori egiteko saiakeran edo, tentagarria izan ohi da kooperatibismoaren sorreraren unea 1844an kokatzea, Rochdaleko esperientzia kooperatiboa abiatu zen garaian. Egun zabaldurik dagoen uste horren arabera, kooperatibak ehungintza industriako langile talde batek osatutako formulazioaren oinardekoak dira. Industria Iraultzaren aroan, 28 ehule langabek Printzipio Kooperatiboan ernamuina izango diren estatutuak idatzi eta kontsumo kooperatiba arrakastaz abiatzean kokatuko litzateke kooperatibismoaren abiapuntuaren unea.

Kooperatibismoaren bilakaeran, Rochdaleko aitzindarien esperientzia kooperatiboa mugari garrantzitsua da, ezbairik gabe. Baina, sorrera unea esperientzia hartan jartzerakoan, zalantzak urgaineratzen dira, garai hartako literatura aztertuz gero. 1833. urtean, –Rochdaleko esperientzia baino hamaika urte lehenago, beraz–, Philippe Buchez frantsesak langileen kooperatiben irizpideak argitaratu zituen, eta, ezaugarri horien oinarrian, *l'Association chretienne de bijoutiers en dorè* langileen kooperatiba sustatu zuen. Lan elkartuko kooperatiben aitzindaria da, ezbairik gabe, Philippe Buchez. 1827. urtean, William King medikuak *The Cooperative Trading Association* kontsumo kooperatiba sortu zuen, Brightonen, Ingalaterran. *The Co-operator* hilabetekariaren bidez, gainera, kooperazioaren ideien zabalkundean aritu zen, eta, aipatzen denez, 300dik gora kooperatiba eratu ziren haren eraginpean. XIX. mendeko lehen hamarkadetako Britainia Handiko langileen lehen oldarraldian langileek grebak egin eta kooperatibak eratu zituztela diosku G.D.H. Colek, garai hartako industria kapitalismoari aurre egiteko. Kooperatiben hainbat kongresu ere egin zituzten, kooperazioan oinarrituriko gizarte antolamendu berria ezartzeko helburuarekin. Kooperatiben zantzuak aurkitzen dira, halaber, XVIII. mendean. Adibidez, E.P. Thompson historialariak 1796an Birminghamen sortu zen *Union Mill* elkartearen berri ematen du. 1.360 bazkidek, langile girokoak gehienak, ogia ekoizpen salneurrian eskuratzen zuten kooperatiba eran kudeaturiko errota haren bidez. Rochdale aurretiko esperientzia haiek guztiak adierazten dute bada-goela zer arakatu kooperatibismoaren sorreran.

Badago, bestalde, kooperatibismoaren oinarriak iturri zaharragoetan ikusten dituenik. Mugimendu kuakeroen sortzaile eta partaideak aipatzen dira ildo horretan: George Fox (1624-1691), Peter C. Plockboy (1620-1700) eta John Bellers (1654-1725). Hain zuzen, jatorrizko kristauen ahaidetasun komunitateak eraiki nahi izan zituzten, elkarlaguntzan, elkartasunean eta lankidetzan oinarrituriko koloniak eratuz. Ingalaterran, landa eremuan kapitalismoaren hazia ereiten hasi zen aro hartan, eta lur komunalen itxiturek baliabiderik gabeko pobrezia errealitate berri bat ekarri zuten. Plockboy-k *kooperazioaren errepublikak* eta Bellers-ek *college of industry* delako koloniak proposatu zituzten lanaren emaitza fededun komunitateen onuraren zerbitzura ezartzeko. Robert Owenen *Villages of cooperation* eta Charles Fourier-en *falansterioen* aurrekari zuzen gisa aurkeztu ohi dira proposamen horiek.



Komunitate logiketatik eratorritako antzinako praktikak ere aipatu izan dira kooperatibismoaren iturri zaharren argudio gisa. Mladenatz-ek, esaterako, kooperatibismoaren doktrinaren gaineko bere lan klasikoan, kooperatibismoaren aurre historiaren adibide gisa aipatu zituen, besteak beste, Babiloniako lurra errentan emateko antolamendua, elkarrekintzan ekoizteko eta kontsumitzeko lehen kristauen ohitura, elkarlaguntza sistemak garatu zituzten Greziako eta Erromako artisau elkarteak, eta Europako nekazaritza tradizioen elkarlan eta kooperazio praktika instituzionalizatuak. Gurean, ideia kooperatibo modernoa auzolana moduko antzinako komunitate praktikekin lotzen dituzten adibideak ere erruz topatzen dira.

Baina gehiegizkoa da kooperatibismoaren sorreraren iturriak topatzeko denboran atzera hainbeste egitea. Funtsean, kooperatibismoa edozein lankidetzeta, elkarlan edo elkarlaguntza motarekin parekatu baino ez da egiten norabide horretan. Gizarte tradizionalen komunitate ikuspegietan sakontzea baliaigarria da elkarlanaren eta elkarlaguntzaren praktika instituzionalizatuek erro sakonak dituztela egiaztatzeko, eta gizartearen antolamendua merkatuaren eta lehiakortasunaren irizpideen pean azpiratzeko kapitalismoaren egitasmoa uste baino berriagoa dela ikusteko. Ildo horretan, Karl Polanyi antropologo eta ekonomialariak adierazi zuen irabazi asmoa eta merkatu autoarautuaren nagusitasuna salbuespenak direla gizateriaren historia zabalean. Gizarte tradizionalen merkatuak ez du bere logikaren arabera egituratzen gizartea; aitzitik, sistema sozial zabalago baten azpisisistema da. E.P. Thompson historialariak "ekonomia morala" nozioa erabili zuen gizarte tradizionalen deskribapena egiteko. Usadioek, ohiturek, gizarte balioek eta komunitatearen espektatibek merkatuaren logika mugatu eta arautu egiten zutela adierazi nahi zuen kontzeptu horren bidez. Merkatuaren prezioen joko librean indar ahula zuen komunitatearen biziraupen baldintzen espektatiben aldean. Elkarrekiko betebeharraren eta eginkizunaren balioaren oinarrian egituratzen zen ekonomia morala, eta, ikuspegi horretan, zilegitasuna ukatzen zitzaion herri xehearen kaltetan diru irabaziak handitzeko asmoz ari zen merkatari edo espekulatzailari.

Thompsonen ekonomia moralaren katebegi gisa aurkeztu zituen XVIII. mendeko eta XIX. mendearen hasierako kooperatiba saiakerak. Gure ustetan, zalantzarik ez dago kooperatibak komunitate logikatik eratorritako lankidetzeta, elkartasun eta elkarlaguntza ikuspegiak bereganatuz eta instituzionalizatuz garatu direla. Baina kontuan hartzekoa da, halaber, kooperatibismoak berezko ezaugarri bereizgarriak dituela eta haietako askoren oinarria industria kapitalismoaren gizarte baldintza berrietan dagoela. Gizarte tradizionalen usadioek zedarrizten zituzten arauen eraispenetik jaio zen kooperatiben ereduak. Atxikimendu librea eta demokrazien printzipioak, esaterako, liberalismoak ekarritako aro berriaren oinarrietan errotu ziren. Kooperatibismoaren eraldaketa egitasmoak, urruneko komunitate idealizatuak berreraiki barik, kapitalismoa gaindituko duen etorkizuneko gizarte kooperatiboa du amets. Halaber, gizarte tradizionalaren errautsetan eta industria kapitalismoak onduriko gizarte baldintzetan topatu zuen bidea kooperatibismoak langile eta herri sektore zabaletan sustraiak zabaltzeko.

## 1. SARRERA

Sozialismoa eta liberalismoa bezala, modernitatearen alaba da kooperatibismoa. Hortaz, XVIII. eta XIX. mendeetan zabalduz aroan aurkitzen dira haren sorrera iturriak. Kooperatibismoaren jatorria eta izate arrazoia arakatzeko, beraz, zentzuzkoa dirudi industria kapitalismoaren garapenaren testuinguruan marrazten hasi ziren mugimenduetan eta ideietan arreta jartzea. Zehatz esateko, kooperatibismoaren iturriaren muina langile eta herri sektoreen inguruneetan eraldatu ziren antolaketa praktika eta ideia sistemetan aurkitzen da. Praktika eta ideia haiek, industria kapitalismoaren aurrean, babes egiturak ez ezik, gizarte berri baten idealaren ernamuina izan ziren. Bi bulkadaz elikaturik agertu zen langileen eta herri sektoreen mugimendu hasiberri hura: batetik, langile auzoetan elkar sostengatzeko, lan borrokak garatzeko edota lana eta kontsumoa era kolektiboan antolatzeko eratu ziren elkartegintza praktikak, eta, bestetik, sozialista asoziazionista gisa ezagutu ziren erreformisten ideien eta esperimenez hedapena. Halakoek, industria kapitalismoak eta lehia librearen doktrinak eragiten zuten sarraski sozialaz ikaraturik, ordena liberal eta kapitalista gainditzeko hainbat alternatiba garatu zituzten, asoziazionismoaren bidetik. Bi horiek dira, ondorioz, kooperatibismoaren sorrera iturriak. Kaplanek eta Drimerrek beren idazlan bikainean adierazi bezala:

"Kooperatibak, askotan, modu espontaneoan sortu ziren, kontsumitzaile, langile edo ekoizle txiki eta ertainen nukleo batzuen ahaleginari esker; kasu horietan, asoziazioan eta elkarri laguntzeko tradizioetan inspiratu ziren, eta elkarlaguntza erakundeak, "erresistentzia" elkarteak edo herri izaerako beste erakunde batzuk ere sortu ziren.

Baina, ekintza espontaneo horrekin batera, eta horrekin nahasturik edo nola-halako loturan, ekimen horietako zenbait inspiratu edo gidatu zituzten erreformista eta doktrinario sozialen pentsamendua ere garatu zen; eta, halaber, hainbat pertsona praktikoko, filantropo edo estatistaren jardura ere ageri da, zeintzuek, gizarte maila sozial desberdinetakoak izanik ere, jendartearen zatirik handienak sufritzen zituen arazo larrietarako irtenbideak sustatzen baitzituzten".

Liburuxka honetan, kooperatibismoaren sustraiak arakatzeko asmoan, Industria Iraultzaren lehen aroan langile eta herri sektoreek garatu zituzten antolaketa eta elkartegintza moduetan jarriko dugu arreta. Hiru urrats nagusitan egituratu dugu idazlan honen ibilbidea: lehenik, langile sektoreen antolakundeak eratu ziren testuinguruari begiratuko diogu. Industria kapitalismoak zabaldu zuen eraldaketa aroa ezaugarritzen ahaleginduko gara. Bigarrenik, egoera berriaren aurrean langileek eta herri sektoreek garatu zituzten antolakunde erak aztertuko ditugu. Kooperatibismoaren ernamuinean dauden antolaketa esperientzia haiek noiz eta zergatik sortu ziren, zer langile sektorek bultzatu zituzten eta, hortaz, zer-nolako

aspirazioak eta bizi xedeak gorpuzten zituzten argitzeko asmoa dugu, funtsean. Azkenik, langile inguruneetako lehen elkartegintza esperientzia horien eta kooperatibismoaren arteko loturak bistaratzen saiatuko gara.

Ez genuke sarrera hau amaitu nahi Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomia Zuzendaritzak eskainitako laguntza eskertu gabe. Dirulaguntza horri esker argitaratu ahal izan dugu liburuxka hau. Bat gatoz Gizarte Ekonomia Zuzendaritza eta Lanki Ikertegia osatzen dugun taldeko kideak kooperatibismoaren oinarriak eta balioak ezagutzera emateko ahaleginean. Asmo horretan, eta irakurketa errazagoa egiteko, aipamen akademikoen zamaz arintzeko hautua egin dugu oraingo honetan. Dena den, testuaren oinarrian dauden iturriak bibliografia atalean jaso ditugu; eta, norbait irakurketa zorrotzago baterako gogoz badago, sarean eskura du lan honen oinarrian dagoen tesi-ikerketak<sup>1</sup>.

1. Ortega, I. (2021). La contribución de los fundadores del cooperativismo de Mondragón al pensamiento cooperativo  
<http://ebiltegia.mondragon.edu:8080/xmlui/handle/20.500.11984/5371>




2

KAPITALISMOA,  
INDUSTRIA IRAULTZA  
ETA XVIII.-XIX.  
MENDEETAKO  
ERALDAKETA  
ERRALDOIA



...ekoizteko tresnen hobekuntza ia mirarizkoa eta, aldi berean, herriaren bizitzaren dislokazio katastrofikoa”.

(Karl Polanyi, 1944)



## 2. KAPITALISMOA, INDUSTRIA IRAULTZA ETA XVIII.-XIX. MENDEETAKO ERALDAKETA ERRALDOIA

la aho batez, XVIII. mendearen amaieratik aurrera Europako herrialdeen errealtatea zeharo eraldatu zuten gizarte eta ekonomia prozesuen testuinguruan kokatzen da kooperatibismoaren sorrera. Ikuspegi nagusi horren arabera, Industria Iraultzak, lan eta gizarte harremanak berregituratu zituen izpiritu kapitalistak, eta gizarte antolamenduaren oinarriak liberalismo ekonomikoaren irizpideen arabera birdefinitzeak gizarte tradizionalaren oinarriak erauzi zituen, eta herri sektore zabalak babesgabe utzi eta pobretze bidean jarri zituen. Hala, kooperazioa, elkarlaguntza, langile borroka eta halako praktikekin batera, herri sektoreek bizi eta lan baldintzen erasoari aurre egiteko garaturiko bide gisa sortu zen, XVIII. eta XIX. mendeetako Britainia Handian.

*The Great Transformation* izenburuko liburuan deskribatu zuen Karl Polanyik Industria Iraultzaren eskutik gertaturiko eraldaketa izugarria. Ekoizpen bitartekoen garapen ikusgarria eta herri sektore zabalak bizi baldintzen kaskartze basatia elkarrekin harremanean jarriz aztertu zuen prozesua. Izan ere, bi prozesuak elkarren ondotik zihoazela zirudien: ekoizpenaren modu berriak gizarte antolamenduaren oinarri tradizionalen suntsipena zekarren. Prozesu hori Marxek eta Engelsek ere nabarmendu zuten 1848an argitaratu zuten *Alderdi Komunistaren manifestua* idatzi ospetsuan. Industria burgesia jaioberriak gizarte tradizionalaren oinarriak iraultzeko erakusten zuen grina azpimarratu zuten:

"Burgesia ezin da existitu ekoizpen tresnak etengabe irauliz ez bada eta, ondorioz, ekoizpen harremanak eta, oro har, harreman sozial denak irauli gabe. Produkzio modu tradizionalaren iraupena zen, aitzitik, aurreko industria mota ororen biziraupen baldintza. Aurreko garaian aldean, burgesiaren aroaren bereizgarriak dira ekoizpenaren iraultza etengabea, posizio sozialen astinaldi atergabea, ezinegona eta mugimendu pausagabea. Harreman sozial gotortu eta lizundu oro, mendeetako sinesmen eta ideia gurtuak, hautsita geratu dira".

Izan ere, gizarte tradizionalan nagusi den oso bestelako jarraibide arrazional bat behar du kapitalismoak. Enpresari kapitalistak arnasa bezainbeste behar du kapitalen inbertsioen etekinen espektatiben bermea. Efizientzia ekonomikoa du arrazoibide gorena, eta, horretarako, ezinbestekoa du ekoizpenerako faktoreak libreki eta behar adina eskuratzeko ahalmena. Industria Iraultzarekin etorri zen ekoizpen modu berriak epe luzeko inbertsioak eta arriskuak aurreikusteko logika berriak ekarri zituen berekin. Kapitalistak produkzioaren antolaketaren gaineko zentzuzko ziurtasunak behar ditu, eta horrek, Polanyik argitu zuenez, soldata baten truke lan egiteko prest egongo den "langileen erreserba nazional" bat sortzea eskatzen zuen. Lanaren kostua kalkulagarria eta aurreikusteko modukoa bilakatzeko bidea zen hura, eta, nola ez, merkantzien bolumena, kostua, prezioa eta etekin espektatibak zehatz kalkulatu ahal izateko baldintza. .

Gauza da, gizarte tradizionalan, kontratu librearen irizpidea baino gehiago, ahaidetasuna, auzotasuna, tradizio eta usadioek ezarritako ohiturak, edota gremioen eta ofizioen arautegia zirela ekoizpena eta lana antolatzeko ardatzak, eta kapitalismoaren garapena ezinezkoa zatekeela ekoizpena eta lanaren antolaketa baldintzatzen zuten arau tradizionalen sistema desegin gabe.

Ezta gizarte tradizionalen antolamenduari eusten zioten motibazio eta mentalitateen errotiko mutazio bat gertatu gabe ere. Max Weberrek esan zuen, *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua* lanean, kapitalismo modernoaren berezko ezaugarria ez zetzala diru gosean, aberasteko grinan, edo kapital inbertsioren bat eskatzen zuten merkataritza ekimenen antolaketan, giza historiaren hainbat unetan presente egon baitira beti, nola edo hala. Kapitalismo modernoaren berezko ezaugarri espezifikoak, Weberren esanetan, handik aurrera enpresa ekimena bustiko zuen "arrazionaltasun ekonomiko"aren ethosa edo izpiritua agertu izana da:

"Ekonomia pribatu kapitalistaren berezko ezaugarrietako bat da kalkulu zorrotzaren arrazionaltasunean oinarriturik egotea, hots, bilaturiko xede ekonomikoaren helburuan zehaztasunez eta austeritatez prestatu egotea; egunean-egunean bizi den nekazariaren bizimoduaren, artisauren patxada pribilegiatuaren, eta nagusiki arrakasta politikoari eta espekulazio irrazionalari erantzunez jarduten duen "kapitalismo abenturazale"aren oso bestelako jarreran".

Oinarri tradizionalako pentsaerak eta jokabideak izan ziren, hain zuzen ere, kapitalismoaren izpirituak lehen ahaleginetan aurrez aurre izan zituen oztoporik handienak. Izan ere, gizarte molde tradizionalari atxikiriko mentalitatea gogor egoskortu zen kapitalaren erabilera arrazionala eta lanaren antolamendu arrazionala oinarri zuten jardunbide berrien aurka. Weberren hariari tiraka, Andre Gorzek prozesu haren garrantasuna ekarri zuen hizpidera. Azken finean, lana irizpide ekonomiko soilez arrazionalizatzeke asmoa ez zen soilik aurrez zeuden jarduera produktiboak era metodikoagoan antolatzea. Zentzu gordinenean, iraultza bat izan zela diosku, bizimoduaren, balioen eta harreman sozialen bihurritzea, "inoiz existitu ez zen zerbait bere zentzu osoan asmatzea". Sistema tradizionalaren ezaugarria zen egitura ekonomikoak harreman sozialen esparru osoago batean arauturik eta azpiraturik agertzen zirela. Bizimodu tradizionala arrazionaltasun ekonomikoa ardatz harturik berrantolatzea nozio arrotza zen zeharo. Arrazionaltasun ekonomikoaren gainetik, bestelako arrazionaltasun bat gailentzen zen, tradizioa, usadioa, komunitateko kideen biziraupen baldintza minimoen espektatiba partekatua ardatz zituena, bestelako helburu eta interesak marrazten zituena, eta interes ekonomiko gordineko jardunbideari zeharkatu ezinako muga zorrotzak ezartzen zizkiona. Hala, Polanyi-  
ren iritziz, sistema tradizionalan, gizon-emakumeak ez ziren ondasun materialez jabetzen interes indibidual hutsa asetzeko; esate baterako, posizio soziala, estatus-  
-eskubideak eta lorpen sozialak bermatzeko. Ondasun materialek zentzua zuten

## 2. KAPITALISMOA, INDUSTRIA IRAULTZA ETA XVIII.-XIX. MENDEETAKO ERALDAKETA ERRALDOIA

xede hori ziurtatzeko erabilgarri ziren neurrian. Max Weberrek erantsi zuenez, lanbide profesionalari emana bizitzea eta aberastasuna berekin dakarren lanbidearen moduko nozioek talka egiten zuten gizarte tradizionalaren zoru etikoarekin.

Hortaz, kapitalismo hasiberri hark gizarte tradizionalak ezartzen zizkion mugetatik askatu beharra zuen, ekoizpena eta lanaren antolaketa arrazionaltasun ekonomikoaren irizpide berrien arabera garatu ahal izateko. Baina aldaketa ez zen modu baketsuan gertatu, Weberrek azaltzen duenez. Alde batetik, "bizimodu tradizionala, mozkin tradizionala, lanaren neurri tradizionala, negozioa eta langileekiko erlazioak kudeatzeko modu tradizionala" eta bezeroak erakarri eta "salerosketak egiteko molde tradizionala" aldatu zituzten lehen enpresa ekintzaileek "mesfidantzaren, gorrotoaren eta gaitzespen moralaren oldea jasan behar izan zuten". Gizarte permisibitatek gabeko giro hartan, zioen Weberrek, "izpiritu kapitalista" berriaren kontzepzio etikoak eta motibazio aszetikoak funtsezko dohainak izan ziren gizarte tradizionalaren ordenari desafio egiteko:

"...“estilo berri”ko enpresariak aparteko izaera adoretsuaren jabe izan behar zuen, bere buruaren jabe izan eta hondamen moral eta ekonomikotik salbu egon nahi bazuen; are gehiago, ekimenaz eta ekintzarako ikuskeraz gain, argiro nabarmentzen zitzaizkion kualitate “etiko” jakin batzuek ziurtatu zioten bezeroen eta langileen ezinbesteko konfiantza, kemena eman baitzioten uneoro agertu zitzaizkion erresistentzia kontaezinak menderatzeko. (...) Enpresari berri haiek (...) bizitzaren eskola latzean hezitako gizakiak ziren, aldi berean zuhurak eta ausartak, gartsuak eta adoretsuak, beren jardunari bete-betean su eta gar emandakoak, ikusmolde eta “printzipio” zorrozki burgesak zituztenak”.

Bestalde, lehen kapitalismo hark aurre egin behar izan zion herriko jendeak lan antolaketa berriaren diziplinarako zuen gogo eskasari. Gizarte tradizionalako langileek oso apaldua zuten diru grinaren edo mozkinaren motibazioa. Ohiko beharrak asetzeko “behar besteko” lana egitea zen arrazionaltasun tradizionalako ohitura. Ondorioz, lan intentsitatea handitzeko lansariak baliatzeak erabilgarritasun gutxi izan zuen aro hartan. Hala gertatu zen lan errendimendua handitzeko asmoz destajuzko soldata erabiltzen saiatu zirenean. Pentsamolde tradizionalaren ezaugarri kultural hori modu argigarrian azaltzen du Weberrek:

"Soldaten igoerak ez zuen beharginen errendimenduaren bizitasuna handitu, txikitu baizik. Behargin batek, esaterako, segatutako ale neurriko marko bana irabazten du, eta, marko bi eta erdi irabazteko, neurri bi eta erdi behar ditu segatu egunean; destajuaren ordainsaria eguneko hogeita bost zentimo igotzen bada, espero litekeenaren kontra, behargin hori ez da



## 2.1. Kapitalismoaren bereizgarritasuna

hiru neurri segatzen ahaleginduko egunean hiru marko eta hirurogeita hamabost zentimo eskuratzearren, baizik eta lehen-go neurri berberak segatuko ditu soilik, aipaturiko bi marko eta erdiak irabazi arte, esaera biblikoari jarraikiz "bai baitauka behar bestekoa". Nahiago izan du gutxiago lan egin, gutxiago irabaztearen truke bada ere; bere baitako galdera ez da zenbat irabaz dezakeen egunean al bait lan gehien eginez gero, baizik eta zenbat lan egin beharko lukeen ordura arte irabazi dituen ohiko beharrianak asetzeko nahikoak zaizkion bi marko eta erdiak eskuratzen jarraitzeko".

Gizarte tradizionalaren ezaugarri horiek aintzat harturik, ez da harritzekoa entzutea industrializazioaren hastapenetan lanaren arrazionalizazio ekonomikoa izan zela kapitalismoaren zereginik zailena. Gorzek azaltzen duenez, ordura arte, "lana" jarduera intuitiboa zen, naturaren zikloen sasoikotasunari lotua, antzinako ohiturek arautua eta komunitate zentzu indartsu baten barruan garatua. Ezinbestean, beraz, XVIII. mendearen amaierako nekazariarentzat eta hiriko artisauarentzat, industria hasiberriaren lanaren antolaketak haien izaera behartzea zekarren.

Baina, orduan, noiz eta nola gailendu zen kapitalismoaren bizi ikuskera? Arreta apur bat eskatzen du prozesu honek guztiak.

## 2.1. KAPITALISMOAREN BEREIZGARRITASUNA

Lanaren eta bizitzaren ordenamendu kapitalista une txiki bat baino ez da gizateriaren historia zabalean. Hala adierazten du Ellen Meiksins Wooden kapitalismoaren sorrerari buruzko idazlan batean. Bide horretan, garrantzitsua deritzo kapitalismoa bestelako gizarte egituretatik bereizten duten ezaugarriak aintzat hartzeari. Izan ere, uste okerren kontra, kapitalismoaren bereizgarriak ez dira diru gosea, salerosketa merkatuen existentzia edo berrikuntza teknologikoa.

Diru gosea edo aberasteko grina oinarri zuten motibazioak eta jardunbideak arruntak izan dira kapitalismoaren aurreko gizarteetan ere. Merkatariak ditugu horren adibide. Florentzia eta Holanda, esaterako, merkatari potentzia ahaltsuak ziren. Baina ez ziren kapitalismoaren sorleku bilakatu. Haien merkatariak praktikak urrun zeuden kapitalismoak ekarri zuen ekoizpen efizientearen irizpideetatik. Prezio

## 2. KAPITALISMOA, INDUSTRIA IRAULTZA ETA XVIII.-XIX. MENDEETAKO ERALDAKETA ERRALDOIA

lehiakorrek erdiesteko ekoizpen kostuak sistematikoki murriztea ez zen inola ere merkataria haien jardunaren ardatza. Merke erosi eta garesti saltzea zen irabaziaren oinarria. Luxuzko merkantzien bueltan antolatu zituzten, nagusiki, merkataritza sare eta baliabide erraldoiak. Zerikusirik ez ekoizpenaren plusbalioan oinarrituriko kapital metaketa prozesuekin, beraz.

Antzera gertatu zen merkatuarekin ere. Merkatuak, gune fisiko gisa ulerturik, gizarte tradizionaletako bizimoduko ohiko jardunak ziren. E.P. Thompsonek maisuki aztertu zuenez, salerosketak egiteko ez ezik, merkatu uneak funtsezkoak ziren komunitate harremanak ehuntzeko. Merkatuetan, saldu eta erosi egiten zen, hein handi batean usadioak, komunitate arauak eta biziraupenerako baldintzen espektatibak zedarrituriko irizpideen pean. Merkatuen dinamika erritualizaturiko presio prozeduraz, tirabiraz eta, hainbatetan, matxinadaz zeharkaturik agertzen zaigu. Salneurriek gehiegizkoak ziruditenean, merkatu praktika susmagarriak sortzen zirenean edo merkataria iren irabazi goseak bizi bitartekoen gutxieneko bermea arriskuan jartzen zuela hautematen zenean lehertzen ziren horrelakoak. Aurrerago etorri zen, kapitalismoaren gizarte antolamendua hedatzearen poderioz, artikulu merkeen masa merkatua; orduan, hautazko baliabidea izateari utzi, eta bizi baliabideak merkatuaren arauen agindupean soilik eskuratu zitezkeen.

Badago ere Industria Iraultza eta kapitalismoaren sorrera lotzeko joera. Baina kapitalismoa ez zen Watten lurren makinarekin abiatu. Andreas Malmek bikain azaltzen du Industria Iraultzaren ernamuinean jazo zen teknologiaren bilakaera. Adibide esanguratsu bat mahaigaineratzen du bere lanean: James Watt 1790. urtean patentatu bazuen ere ikatz bidezko lurren makina, ekoizpen prozesuetan ez zen 1850. urte arte nagusitu haren erabilera. Ondorio argi bat nabarmentzen du hari horretatik tiraka: ekoizpen molde kapitalistak Industria Iraultza ezaugarritu zuen teknologiaren ezarpena baino lehenagokoak dira. Hala ere, kapital-langile harremanean, langileen erresistentzia jarrerak gaitzetzeko nahia izan zen ikatz bidezko mekanizazio prozesuen aldeko hautua egiteko garai hartako enpresarietara izan zuten arrazoi nagusia. Eta, bide batez, Malmek azpimarratzen duenez, baita ur jautzien fabrikazio sistemak ikatzaren bidez ordezkatzeko ere. Beraz, eta Meiksins Wooden hitzak berriro gurera ekarriz, lanaren ustiapena gogortzeko joera ez zuten berez lurren makinak eta fabrika sistemak ekarri; oinarrian, eta guztiaren zutoin, produktibitatea eta irabazi metaketa areagotzeko kapitalismoaren ekoizpen moldearen muineko beharrez dago. Hori ziurtatzeko inbertitu zen berrikuntza teknologikoan, ez alderantziz.

Gauzak horrela, zein da, orduan, kapitalismoaren ezaugarri bereizgarria?

Merkatuaren izaera inperatiboa azpimarratzen du, lehenik, Meiksins Wooddek. Kapitalismoan, merkatuaren arauen barruan eskuratu daitezke soilik ekoizpen eta bizi baliabideak. Aldea dago, beraz, biziraupen baliabide gehienak ekoizpen pro-

## 2.1. Kapitalismoaren bereizgarritasuna

pioaren bidez eskuratzen zituen nekazaritza oinarriko gizartetik. Kapitalismoan, eragile oro merkatuaren dependentsia aurkitzen da. Langileek beren lan indarra eskaini behar dute merkatuan, soldata truke; eta kapitalistek merkatuan eskuratu beharko dituzte ekoizpen inputak, eta merkatuan ere outputak saldu, etekinak eskuratzeko. Ez dago merkatuaren sare itsasorretik at bizimodua aurrera ateratzeko modurik.

Etekin ekonomikoa da, bigarrenik, merkatu dinamikaren ardatza. Horrek esan nahi du merkatu kapitalistan ondasun eta zerbitzuak ekoizten direla merkatuan errentagarritasunez saldu eta etekin ekonomikoa eskuratzen delako. Are gehiago, ondasun eta zerbitzuen ekoizpena kapital metaketaren eta etekin kapitalistaren zerbitzura ezartzen den prozesua da.

Azkenik, merkatuaren logikan, lehiakortasuna eta errentagarritasun ekonomikoa dira funtsezko gakoak. Horren guztiaren ondorio nagusia zera da, ekoizpen prozesuan berebiziko garrantzia duela baliabide teknikoaren bidez lanaren produktibitatea etengabe handitzeak, merkatu lehiari gailentzeko. Sistema kapitalistaren bulkada konpultsiboa dela gaineratuko genuke. Hala, eta merkatu kapitalistaren logika hedatu ahala, lehiakortasuna, errentagarritasuna, produktibitatea eta etekin ekonomikoa, merkatu dinamikaren funtsezko gakoak ez ezik, gizartearen bizi antolamenduaren esparru nagusiak ardatzen dituzten ezaugarri bilakatzen dira.

Laburbilduz, Meiksins Wooden ikuspegiak adierazten digunez, kapitalismoa, zer edo zer izatekotan, gizarte harremanen antolaketaren irizpideen iraulketa bat izan zen. Beste galdera bat dakarkigu ikuspegi horrek: nola eta zergatik bereganatu zituen lehiakortasuna, etekin ekonomikoa edo diru truke gogor lan egiteko presuntasuna gizarte hark, kontuan hartuta ohiko bizimoduaren premiak asetzeko eta nahikotasun irizpideen arabera lan egiten zuela, ez behar beste baino gehiago; lan eginbeharrak naturaren zikloaren arabera antolatzen zituela komunitatean, klanean edo familian, eta, ohikoa zenez, komunitate usadioei, sinesmenei eta arauetara jarraituz lan egiten zuela; eta komunitateko kideen biziraupen baldintzak ziurtatzearen diru grina lehenesten zuten merkatari espekulatuzaileek zigortzen zutela?

Galdera horren erantzuna XVI. mendeko Ingalaterran bilatu beharra dagoela diosku Meiksins Wooddek. Landa eremuan izan ziren zenbait berrikuntzak piztu zuten gizarte ikuspegi kapitalistaren txinparta, lur jabe handiek mendeetan ondutako ohiaturako erabilerak bazterrean utzi eta merkatu irizpideetan oinarrituriko errentamendu sistema berria abiatu zutenean. Handik aurrera, eskaintza onena egiten zuen nekazariari alokatuko zitzaizkion lurak. Maizterrak, hala, kontsumitzaileen merkatuan lehiatu ez ezik, lur eskaintzaren merkatuan lehiatzen hasi ziren. Sistema berrian, nekazaritza lurretarako sarbide errazagoa zuten produkzio ahalmen lehiakorrena eta errenta altuak ordaintzeko gaitasuna zutenek. Are gehiago, lurriari etekin handiena ateratzeko gai ziren nekazari lehiakorrenek lursail handiagoak

## 2. KAPITALISMOA, INDUSTRIA IRAULTZA ETA XVIII.-XIX. MENDEETAKO ERALDAKETA ERRALDOIA

eskuratzeko aukera zuten, eta beste asko, aldiz, lur sarbiderik gabe geratu, eta desjabetuen klasea osatzera igaro ziren.

Oinarri feudaleko ekonomia eta gizarte egituraren barruan, beraz, kapitalismoaren hazia erein zen. Paisaia sozialean, lur jabe handiz, maizter kapitalistaz eta bizirau-terko lan indarra eskaini beharrean aurkitzen ziren soldatapeko langilez osaturiko hirukoa agertzen zen. Nekazaritza lurren ustiaketan etekinak handitzeko eta produktibitatea biderkatzeko presioa areagotu zen. Lurra emankor eta errentagarri bilakatzeko “hobekuntzaren filosofia” izenez ezagutuko den ikuspegi ekonomiko berria nagusitu zen. Lurraren produktibitatea baldintzatzen zuen usadio edo praktika tradizional oro auzitan jarri eta ezabatzeko borrokatu ziren. Bilakaera hartan, jabetzaren inguruko nozio berri bat ernaldu zen, lurra jauntxoaren jabetza pertsonal eta eskusibo gisa ezarri zuena, eta komunitateko kideen gozamen eskubide tradizionalak –egurra batzea edo lugorrietan abereak bazkatzen jartzea, adibidez– eten zituen. Izan ere, arrazionaltasun berri hark erdigunean jarri zuen jabetzaren inguruko nozio pertsonala, usadio feudalak agintzen zuen elkarrekiko betebeharraren nozioaren kaltetan.

Lursailen itxiturak izan ziren prozesu haren adierazpiderik gordinena. Eta gordinena diogu, itxiturak ez zirelako lursailen hesitze fisiko bat soilik; komunitate erabilerako eskubide eta ohitura ororen iraungitzea ekarri zuten, zeinak oinarritzko baliabideak baitziren herri xehearen biziraupenerako. XVI. mendeak ekarri zuen itxituren lehen olatua, eta XVIII.ak bigarrena. Ordukoak dira, era berean, eskale eta arloteen izurritearen berri eman zuten kronikak.

XVIII. mendeko industria kapitalismoak orube haren gainean garatu zituen bere oinarriak. Meiksins Woodek hiru oinarri-baldintza azpimarratzen ditu. Batetik, biztanleria zabala elikatze ahalmena izango zuen nekazaritza eredu bereziki emankorra. Bigarrenik, desjabeturiko jende oldea, hots, soldatapeko lan indarra-ren multzoa. Hirugarrenik, eguneroko kontsumo-gai merkeen eskarian oinarritu-riko barne merkatuaren eraketa. Jar dezagun arreta Londresen, adibidez: 60.000 biztanle zituen 1530. urte inguruan, eta 575.000 1700.ean. Parekorik ez zegoen Europa osoan.

## 2.2. ARRAZIONALTASUN KAPITALISTA ETA DIZIPLINAMENDU SOZIALA

Herri sektore zabalak arrazionaltasun ekonomikoaren ikuskera kapitalistara erakartzeak, ordea, luze jo zuen. Eta ez zen gatazkarik gabeko prozesu bat izan. E.P. Thomsonek gogora ekartzen digunez, tradizioan oinarrituriko usadio eta ohituren kontzientzia bereziki indartsua zen oraindik ere XVIII. mendeko gizartean. Are gehiago, haren ustez, XVIII. mendeko historia soziala, hein handi batean, merkatu ekonomia berritzailearen eta herri xehearen ohiko ekonomia moralaren arteko liskarren segida gisa interpreta daiteke. Etengabeak izan ziren gobernariak, merkatariek edo lantegietako patroiek ezarri nahi zituzten berrikuntzako eta lanaren arrazionaltasun ekonomikoko neurrien aurka herritarrek garaturiko erresistentzia gertakariak. Herritarrak tradizioaren eta usadioen babespean saiatzen ziren lur komunalen itxiturei, lanaren diziplinari edo oinarritzko elikagaiak arazuz kanpoko prezioetan saltzeko saiakerei aurre egiten.

Izan ere, eta aztertzen ari garenez, arrazionaltasun ekonomikoaren molde berri hark tradizioetik eratorritako usadio arautuak, ohiturak eta sinesmenak zituen etsai nagusi. Kapitalismo hasiberria mundu ikuskera arrazional zientifiko-burgesaren eskutik zetorren, eta, ezinbestean, talka egiten zuen mundu tradizionalaren mundu ikuskerarekin. Balio burges-puritanoen moldera egokitzeko, herri xehea diziplinatu beharra zegoen, eta produktibitatearen helburuak natura konkistatzea eta mendearen hartzeko ikuspegiak indartzen zituen, naturaren gaineko ulermen holistiko eta ziklikoen kaltetan. Emakumeak izan ziren diziplinamendu sozial haren lehen biktimak. Ildo horretan, Silvia Federici ikerlariak datu esanguratsu bat eskaintzen du Caliban eta sorgina liburuan: Ingalaterran, sorginen aurkako epaiketa gehienak Essex eskualdean egin ziren, hain zuzen ere XVI. mendean lursail gehienak itxituretan zituen konderrian.

1580tik 1630era bitartean izan zen Ingalaterran sorgin ehizaren une gorena, eta, Federicik argitzen duenez, emakumeak jopuntuan zituen diziplinamendu prozesuaren testuinguruan ulertu behar dira gertaera horiek. Federicik erakusten digu gizarte tradizional feudalean, herri xehearen barruan, emakumeak ez zirela gizon ahaideen mendekoak. Lurra familia unitateari emateak gizon jopuen autoritatea mugatzea ekarri ohi zuen, eta, gainera, sexuen arabera lan banaketa ez zen hain nabarmena eta baztertzailea, emakumeek familiaren eginbeharretan egiten zuten lanak ez baitzuen gainerakoenak balio txikiagoa. Hiribilduetan ere, emakumeek gizonaren babesarekiko zuten mendekotasuna txikiagoa zen, eta ohikoa zen emakumeak bakarrik edo umeekin baina familiaburu gisa bitiztea, bizilekua

## 2. KAPITALISMOA, INDUSTRIA IRAULTZA ETA XVIII.-XIX. MENDEETAKO ERALDAKETA ERRALDOIA

beste emakume batzuekin partekatuta, edota gerora gizonen lanbidetzat hartu zirenetan aritzea.

XVI. eta XVII. mendeak emakumeen degradazio sozialaren prozesuarekin lotzen dira. Arrazionaltasun burges eta puritanoa hedatzearekin bat, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak maximizatzen zituzten kultura-kanon berriak eraiki ziren, prototipo femeninoagoak eta maskulinoagoak sortzearekin batera. Iruditeria hartan, emakumea gizona baino gutxiago zela erakusten zen, sentiberegia, lizunegia, ez baitzen bere burua gobernatzeko gai, eta, hortaz, gizonen kontrolpean egon behar zuela defendatzen zen. Ondorioz, emakumeek gizartean eta gizonekiko zuten posizioa birdefinitu zen, eta komunitatean eta espazio publikoan zuten autonomia eta hainbat funtzio galdu zituzten. Prozesu horretan, sorgin ehizaren prozesuek berebiziko garrantzia izan zuten, gizonen emakumearen boterearen beldur izatea irakasteko, emakumeen eta gizonen arteko zatiketak areagotzeko eta, oro har, arrazionaltasun berria auzitan jartzen zuten jardunbide, sinesmen eta subjektu sozialen unibertso oso bat suntsitzeko. Gauzak horrela, XVII. mendearen amaieran, feminitate eredu berri bat nagusitu zen. Kanon haren arabera, emakume eta emazte ideala pasiboa, esanekoa, aurreztailea, hitz gutxikoa, etxeko lanei buru-belarri emana eta garbia zen. Emakumeak ez-langile gisa definitzeko prozesua XVII. mendearen amaieran osatu zela zehazten digu Federicik. Haren lekua esparru publikotik bereizita agertzen zen familiaren nozio berrituan zetzan, familia zaintzan eta etxearen zaindari. Emakumeen diziplinamendu prozesuak XIX. mendean jo zuen goia, lanaldi osoko etxekoandarearen irudia langile klasearen barruan orokortu zenean.

Baina gizarte ikuskera kapitalistak eskatzen zuen lanaren antolamendu arrazionalarekiko langileen diziplinamenduak ibilbide luzea zuen oraindik egiteko. XVIII. mendean, lehen industria lantegiak martxan jarri ziren sasoiari, fabrikaren diziplina onartzeko prest zeuden langileen kontratazioa enpresari kapitalisten buruhausterik handienetakoa zen oraindik. E.P. Thompsonen idazlanak ardatz harturik, ohartu gaituzen, eraldaketa zantzuak nabarmentzen hasi baziren ere, XVIII. mendeko Ingalaterra oinarri tradizionalako gizartea zela. Lehen industria lantegiak eskualde bakan batzuetan agertu ziren, nekazaritza oinarriko ingurune nagusi batean. Gizarte hartan, naturaren ziklo eta sasoiak zehazten zituzten eginbeharren logikari erantzuten zion lanak, denbora arautuari baino gehiago. Lana tradizioz eratorritako ohitura eta arauen errespetuan garatzen zen, komunitate zentzu sendo baten barruan, iruteko sistema tradizionala deskribatzeko Thompsonen erabiltzen duen pasartean suma daitekeenez:

"Ehunak enplegua eman zion familia osoari, baita etxean iruteari utzi zitzaionean ere. Haurrek matazak egiten zituzten; haur zaharragoek akatsak zaintzen zituzten, zikinkeria kentzen zuten edo ehungailu zabalean anezka botatzen laguntzen zuten; nerabeek bigarren edo hirugarren ehungailu batean

## 2.2. Arrazionaltasun kapitalista eta diziplinamendu soziala

lan egiten zuten. Emazteak ere laguntzen zuen ehungailuan, etxeko lanetan egiten zituen pausaldietan. Familia osoa elkarrekin bizi zen eta elkarrekin lan egiten zuen, eta, otorduak pobreak izan arren, mahaian eser zitezkeen egoki iruditzen zitzaieanean. Ehungailuaren inguruan familia eta komunitate bizitzaren eredu oso bat sortu zen; lanak ez zuen elkarriketa edo kantua eragozten".

Gizarte haren oinarri tradizionala begi-bistakoa da herri xehearen protesta moldeetan ere. Liskarrak eta altxamenduak tradizioetik eratorritako ohituren eta usadioen legitimazioan argudiatzen zituzten. Tradizioz oinordetzan jasotako arauak berrestea zen haien xedea; esaterako, sutsuki oldartzen ziren eskasia garaitan oinarrizko elikagaien salneurria zehazteko merkatu librearen irizpideez baliatzen ziren merkatarien kontra. Thompsonnek aipatzen du matxinadek, nagusiki, aristokraziaren betebeharrak paternalistak gogoraraztea zutela helburu.

Nekazaritza oinarriko gizarte tradizional haren testuinguruan hasi ziren agertzen XVIII. mendean industria kapitalismoaren lehen ekoizpen moldeak irun eta ehun sektoreetan: etxez etxeko lan kapitalista, zeinean, enpresari baten enkarguz, artisau independente ohiek edo lanik gabeko sasoian denbora zuten nekazariak lehengai gordina lantzen baitzuten; eskala handiko destajuzko lana; industria faktoria txiki ugariak, zeinetan *master* edo patroik batek langile kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko peoiak enplegatzen baitzituen; eta, oraindik orokortua ez bazen ere, milaka langile batzen zituzten lehen fabrika handiak.

Antzekoa da Hobsbawmen oharra ere. 1840ko hamarkadaren hondarretara arte, britainiar herritarrek gehienbat nekazariak ziren. Garatu ziren lehen industria-guneak eskualde gutxi batzuetan kontzentratuak agertzen ziren, eta haietako asko fabrika aurreko etapa batean mantendu ziren. Zehazkiago, 1815ean oraindik ere, "industria" eta "fabrika" nozioak, zentzu modernoan, Lancashire eskualdeko kotoiaren manufakturei soilik aplikatzen zitzaizkiela dio historialari honek. 1840. urtea baino lehen, gainerako manufaktura industrietan ia ez zegoen fabrika sistemaren bidezko ekoizpenik. Andreas Malmek argitzen duenez, 1820. urtean abiatu zen lurrin makinaren zabalkunde handia industrian, eta, behin abiatuak, abiatuak, 1850. urterako, gauzatu zen industria ehunaren eraldaketa.

Gauzak horrela, eta aztertzen ari garenez, XVIII. mendea gizarte tradizionalaren eta industria kapitalismoaren ezaugarrituriko gizartearen igarobidea marrazten duen trantsizio aroa da. Industria hasiberriaren inguruan bildu ziren merkataria, enpresariak, industria tailer txikietako nagusiak eta haietan lanean jarduten zuten langileak aristokraziaren sare paternalistaren mendekotasunetik askeago sentitzen hasi ziren. XVIII. mendeko ekonomia misto hartan, gainera, herri xeheak aukera aurkitu zuen lursail txikiek edo lur komunalen erabilerak eskaintzen zituzten baliabideak industria ekoizpen askotariko horretan aldizkako lanak eginez

## 2. KAPITALISMOA, INDUSTRIA IRAULTZA ETA XVIII.-XIX. MENDEETAKO ERALDAKETA ERRALDOIA

lortzen zituen diru sarrerekin osatzeko. Thompsonek dioenez, testuinguru hartan, "langile askearen psikologia"ren hazkunde baten zantzu indartsuak daude. Langileek ahalmen handia zuten lanaren eta aisiaren arteko tartea antolatzeko eta, lana egitekotan, zenbait patroiren artean aukeratzeko. Ez da harrizkeoa, beraz, garai hartako enpresari kapitalisten kexa ohikoenak langileen diziplina eza, laneko irregulartasuna, mendekotasun ekonomiko eza eta matxinatzeko joeraren ingurukoak izatea. 1724an, adibidez, D. Defoe kexu zen langileak oldartu eta matxinatu egiten zirelako merkataritzaren estualdietan eta enpleguaren eskasia garaietan; eta, lan eskaintza ugaria zenean, ordea, lotsagabe, nagi, alfer eta libertino bilakatzen zirelako, eta astean bizpahiru egunetan baino ez zutelako lanik egin nahi.

Ingalaterran, mentalitate tradizionalaren eta kapitalismo industrialak eskatzen zuen arrazionaltasun ekonomiko berriaren arteko talkaren adibideak XIX. mendearen lehen zatian ere aurki daitezke. Hobsbawmek Lancashireko langileen kasua deskribatzen du: absentismo masibora jo zuten, jabeek fabrikak itxiarazteraino, jaiegun tradizionalak errespetatu zitezela, eta 1840ko hamarkadara arte jarraitu zuten haiek ospatzen. Thompsonek, berriz, XIX. mendearen lehen zatiko ehungintzako ugazaben kexa jasotzen du, ehuleek "astelehen santuan" jai hartzen zutelako eta, batzuetan, asteartera arte luzatzeko joera zutelako. Adibide horiek argigarriak dira 1830-1840ko Ingalaterrako gizartea ekoizpen moldeen aldetik askotarikoa zela ulertzeko. Fabrikak, tailerrak, ehungintza eta nekazaritza komunitateak bata bestearekin nahasirik zeuden eta, ondorioz, tradizio, arau eta bizi espektatiba ezberdinek bat egiten zuten lurralde berean. Testuinguru hartan, beraz, ez da harrizkeoa tradizioaren izenean lehen ehun industriak ezarri nahi zituen erritmo eta lan arauak baldintzaturiko hainbat errealitate topatzea; edo langile kualifikatuaren soldata merkatuaren eskaintza eta eskariaren arabera baino gehiago gizarte estatusaren edo ohituren arauen arabera finkaturik egotea; edo prezioak usadioari jarraituz ezartzea, ekoizpen kostuaren kalkulua aintzat hartu gabe, Farnhamen familia enpresa bere gain hartu zuen enpresaburuaren lekukotzak adierazten duen moduan:

"Nire zailtasunik handiena ohiko prezioak zeintzuk ziren jakitea izan zen... Ez dut uste barruti osoan industrialari edo artisau merkataririk egongo zenik –eta ziur nago, egotekotan, ez zela errepede fabrikatzailea izango– benetan jakingo zuenik bere produktuaren kostua eta etekinak zenbatekoak ziren, edo lan jakin baten bidez irabazi ala galtzen ote zuen".

Gizarte tradizionalari loturiko artisau ofizioen usadioak lehen industria tailerretan oso presente zeudela ere gogorarazten digu Thompsonek:

"Ofizioen tradizioak prezio "on" baten eta soldata "justu" baten nozioekin batera joan ohi ziren. Irizpide moral eta so-



## 2.2. Arrazionaltasun kapitalista eta diziplinamendu soziala

zialak –biziraupena, begirunea, kualifikazio mailari atxikitako harrotasuna, trebetasun maila jakinei loturiko ohiturazko sariak– arrazoi ekonomikoak bezain garrantzitsuak izan ziren lehen eraketa industrialetan".

Industria Iraultzaren hastapen haietan, lan egiteko kultura molde tradizionalari atxikita zegoen langileari esperientzia zeharo arrotza zitzaion modu iraunkorrean enplegatua egotea eta aste osoan erregulariki lan egitera behartua egotea. Lanaren antolamendu arrazionalaren diziplinari absentismo praktika askotari-koak erabiliz egin zitzaion aurre: lanbide jakin batzuetan, langileen ohitura zen asteko lana hiruzpalau egunetan kontzentratzea, eta eurek erabakita lanera itzultzea; beste batzuetan, lansaria jaso eta hurrengo egunean ez ziren tailerlean agertuko, edota dirua xahutu arte ez ziren hara hurbilduko; lantokira ere berandu joan ohi ziren, eta, bertan, kantuan eta edanean aritu zitezkeen lana egin bitartean; patroï eta nagusiekin eztabaidatzea ere gustuko omen zuten. Langileen eraginkortasun eza, alferkeria, horditasuna, asistentzia irregularra, nagikeria eta beligerantzia izan ohi ziren enpresaburuen ohiko kexak.

Errealitatea honako hau zen: urtaro edo klimatologia zikloen arabera eginbeharrak egokitzen zituen laborari-ehuleari, tailer txikiko artisauari, edo ofizio langile kualifikatuari okagarria zitzaien fabrika batean lan egin behar izatearen perspektiba. Nardagarria zitzaien fabrikako burrunba, zarata eta iskanbila, diziplina arrotz baten menpe egon behar izatea eta denboraren markaketa neketsua; lanaldi luzeek, gainera, familia harremanak desegituratzen zituzten, edo bestelako zereginetan aritzea galarazten zuten; fabrikak toki immoral gisa hautematen ziren: sexu-lizentzia antroak, hizkuntza lizuna, krudelkeria, istripu bortitzak eta tratu okerrak gailentzen ziren lekua ziren. Baina, oroz gain, fabrikan lan egitea gorrotagarria zitzaien gizarte estatusetan behera egitea zekarkielako: xume bizirik ere, beren inizatiba mantentzen zuten langile izatetik mirabe izatera igarotzen ziren. XIX. mendearen lehen hamarkadetan, langile klasea gogor estratifikaturik agertzen zen: batetik, artisauak edo langile kualifikatuak, eta, bestetik, peoiak edo kualifikaturik gabeko langileak zeuden. Egoera hartan, fabrikan lan egin beharra artisauen eta langile kualifikatuen kategoria eta estatus galerarekin lotzen zen, kategoria horri egokitzen zitzaizkion lansariak eta baldintzak galtzearekin batera.

## 2.3. MEKANIZAZIOA ETA GIZARTE TRADIZIONALAREN OINARRIEN DESEGITURAKETA

Industria kapitalismoak, hortaz, gizarte eta pentsaera tradizionalaren trabak desegin behar izan zituen bere eragina luze eta zabal barreiatu ahal izateko. Bide horretan, ezinbestekoa zuen sistema tradizionalaren erregulazio modu guztiak ezabatzea, prezioak –lan indarrarena barne– merkatuaren joan-etorri askearen arabera finkatzeko. Horrek guztiak, Polanyik zorrotz ikusi zuen bezala, gizartearekin ekonomikoaren zutoinaren gainean berreraikitzea zekarren; ondorioz, hura bizimodu arrunteko portaeren justifikazio mailara goratu, eta herritarrak ahalik eta diru gehien irabazteko asmoz jardutera bultzatzen ziren.

Hori guztia modu mailakatu eta progresiboan egin zen, denbora tarte labur samarrean, Thompsonen eta Eric Hobsbawmen ikerketa klasikoek bikain erakusten dutenez. 1760tik 1820ra bitarteko lur komunalen itxituren olatu berriak bultzada handia eman zion prozesu hari. XVIII. mendean eta XIX. mendearen hastapenetan, lur komunalek ezinbesteko garrantzia izaten jarraitzen zuten txiroen biziraupen ekonomian. Nahikotasunaren irizpideen arabera xume bizi zen langileak oinarri tradizionalako bizimodua aurrera ateratzeko modua topatzen zuen lursail txikien edo lur komunalen erabilerak eskaintzen zizkion baliabideekin eta industria hasiberrian aldizkako lanak eginez. Fabrikaren diziplinapean aritzeko premiarik ez zuen, beraz. Itxituren olatu berriak herri sektore txiroenak soldatapeko lanari men egitera bultzatzeko motibazio argia zuen. 1810ean, Vancouver delako batek hala adierazi zuen *General View of the Agriculture of Hampshire* kazetan:

"Basoek jabetzea laborantzan eskulan kopuru osagarria eskuratzeko bitartekoa litzateke, eta, bide batez, herri lurretan, lugorrietan eta baso ingurune orotan ikusten diren nagikeria, alferkeria eta miseria habia eta hazitoki horiek guztiak apurka-apurka birrindu eta suntsituko lirateke".

1850. urterako, ia salbuespenik gabe, lursail ireki guztiak hesiturik zeuden. Landa eremuko herritarrek bi aukera baino ez zituzten bizirauteko: soldatapeko jornalari bilakatu, edo sortzen hasiak ziren hirietara edo industriaguneetara emigratu eta beren burua peoi gisa eskaintzea.

### 2.3. Mekanizazioa eta gizarte tradizionalaren oinarrien desegituraketa

Beste alde batetik, eta aldi berean, merkatuaren eta lanaren askatasunaren xedapen liberalek gremioen araudiak indargabetu zituzten. Araudi haiek tradizioa zuten oinarri, eta artisau lanbideetarako sarbidea arautzen eta mugatzen zuten. Horrek artisautza tradizionalaren gainbehera ekarri zuen ezinbestean, arau eta erregulazio babesik gabe indarge agertzen baitzen industria ekoizpen modu berrien lehiaren aurrean. Liberalismo ekonomikoaren irizpideei jarraituz, bata bestearen atzetik ezarri ziren neurriek industria kapitalismoaren ezarpena erraztu zuten. Marxen eta Engelsen hitzak erabiliz, industria ugazaba txikiak, errentatzaile eta merkatari txikiak, artisau eta laborariak –hau da, garai bateko klase ertainaren behe eskala guztia– biziraupen tradizionalaren oinarriak galdu, eta, halaber, “proletariotzaren lerro”etan batzen hasi ziren.

Baina, maila handi batean, lanaren antolaketa arrazionalaren irizpideak ez ziren onartuak izan harik eta muturreko pobrezia garai hartako langile klaseek eraikitako erresistentzia jarrerak eta defentsak eraitsi arte. Urrats hori mekanizazioaren bidetik etorri zen. Produktzioaren automatizazioak, Marxek *Kapitala* lanean aztertu zuenez, hirietako ofizioen eta landa eremuko nekazaritza independentearen desagerpena azkartu zuen. Makinek, bestalde, izugarri murritzen zuten lanpostuaren trebetasunak garatzeko beharrezkoa zen denbora, eta, ondorioz, enpresari kapitalistei aukera eskaintzen zieten langile kualifikatuen talentua kualifikaziorik gabeko eskulanarekin ordezkatzeko. Makinak, hortaz:

"Gizabanako talde batzuk beste batzuekin ordezkatzeko dituzte; abila trebetasunik gabekoekin, helduak meuekin, gizonezkoak emakumezkoekin. Aldaketa horiek guztiak gorabeherak eragiten dituzte soldaten prezioan".

Interpreta daitekeenez, Industria Iraultzako berrikuntza teknologikoen aukera eskaini zuten ekoizpen sistema artisau eta langile kualifikatuen dependentsiatik emantzipatzeko. Hala, langile independentearen azken gotorlekua eraistea lortu zuten garai hartako industria enpresariak. Andreas Malmek eskaintzen dituen adibideen bidez argiago ikusiko dugu mekanizazioaren ezaugarri hori.

Mekanizazioaren lehen urrats esanguratsuak kotoi-irute industriari egin ziren. Sektore horretan hainbat esperientzia garatu baziren ere, XIX. mendearen hasieran ekoizpenaren automatizazioa osatu gabe zegoen oraindik. Ekoizpen prozesuaren une zehatz batzuetan, ezinbestekoa zen “beso gihartsuak eta atzamar abila” zituzten langileen ekarpena. Hainbestekoa, ezen ekoizpenaren azken emaitza baldintzatzeko ahalmena baitzuten, eta, nahi izanez gero, baita produktio kate osoa etetzeko ere. Horrek guztiak, noski, langile kualifikatuei lanaren gaineko autonomia eta kontrol handia eskaintzeaz gain, negozio ahalmen garrantzitsua ziurtatzen zien enpresaburuaren aurrean. Langileek, oldarturik, eta kapitalisten etsipenerako etekin tasak berrezartzea oztokatzen zenez, 1825eko krisian, soldata igoera garrantzitsuak bermatu zituzten. Irute industriako enpresari kapitalisten erantzuna

## 2. KAPITALISMOA, INDUSTRIA IRAULTZA ETA XVIII.-XIX. MENDEETAKO ERALDAKETA ERRALDOIA

ekarri zuen horrek. 1825. urtean bertan iritsi zen, munduan benetako lehen makina automatikoa beharko lukeenaren diseinuaren enkargua ingeniari talde bati esleitu ziotenean. Garai hartako aldizkari batean adierazi zenez, helburua argia zen: "Lurrun-energiak bultzaturiko makinak irule trebe baten eskuek normalean egiten dituzten doikuntzak egiteko erregulazio ahalmena izatea". 1830ean ekoizti zuten irute makina automatikoa, *self-acting mule* izena hartu zuena eta langileiaren artean "burdinazko gizona" ezizenez ezagutzera eman zena.

Handik aurrera, makinaren zerbitzura lan egingo zuten laguntzaileak baino ez ziren beharko ekoizpen prozesuan. Ekoizpenaren mekanizazioak bi onura argi zituen enpresaburuentzat. Bata, produktibitatearen hazkundea, makina berriak, denbora berean, iruleek ohiko makinekin baino ehuneko 20 edo 25 hari kopuru gehiago ekoizten baitzuen. Bestea, langileen oldarraldi antolatuetatik babesteko aukera. Ondo baliatu zuten aukera hori greba deialdi berrietan. Langile antolatuak makina mekanizatuekin eta langile kontratatu berrieekin ordezkatzuz erantzun zuten lehenik. Grebak ez ezik, iruleen sindikatua bera ere desegin zen bidean. Kapitalistek ehunka langile kaleratuz eta emakume gazteez ordezkatzuz baieztatu zuten beren garaipea. Langileen erresistentzia ahalmena hutsaren parekoa bilakatu zen. Soldatak, 1840ko hamarkadan, burdinazko gizona iritsi baino lehenagoko garaiarekin alderatuta, erdira jaitsi ziren.

Ehun industriak jarraitu zion irute sektorearen mekanizazio bideari. Adibide aipagarria da, industria sektore horrek bestelako ezaugarriak baitzituen. XIX. mendearen hastapenetan, etxetzeko sistemaren arabera antolaturik jarraitzen zuen. Enpresariaren gainbegiradapean garatzen zen lana. Hark jartzen zuen haria, hark ikuskatzen zuen amaieran osaturiko ehuna, hark ordaintzen zuen lana, hark saltzen zuen ehuna merkatuan, eta hark bereganatzen zuen etekina. 1784an ehule mekanikoa asmatu bazen ere, lanaren kostu izugarri apalek ez zuten makinaren inbertsioa errentagarri egiten. Ehungintzan erabiltzen ziren esku-makinak eta bestelako gailuak ez ziren bereziki garestiak, eta, gainera, erabilerrazak ziren. Ondorioz, irute industriaren mekanizazioak hariaren eskaintza esponentzialki biderkatu zuenean, ehungintza nekazari xumeen, irule baztertuen, langabeen eta sektore pobretu ugariaren babesleku bilakatu zen. Ehuleen kopuru zabalak lanaren salneurriaren gainbehera ekarri zuen. 1805. urtean, piezako 23 txelin ordaintzen zitzaion langileari; 1820an, 8 txelin, eta, 1830ean, 6 baino ez. 1825eko krisiarekin jo zuen hondoa ehuleen egoerak, zeren eta enpresariak, beren arteko lehia, piezako prezioa murrizteko bolada berrietan murgildu baitziren gupidarik gabe. Langileak ehun pieza gehiago sortuz ahalegindu ziren egoerari aurre egiten. 14, 16 eta 18 orduko lan jardunak ohikoak bilakatu ziren sasoi hartan, baina soldatek behera baino ez zuten egiten; ondorioz, pobrezia eta miseria zabaldu ziren industria langileen sektore zabalena osatzen zuten ehule familien artean.

Testuinguru hartan, baina, ehule abilenak beren trebezia baliatzen hasi ziren, ehun piezak manipulatzuz eta moldatuz, hari kopurua aurrezteko eta soberakina esku-

### 2.3. Mekanizazioa eta gizarte tradizionalaren oinarrien desegituraketa

pulurik gabeko enpresariei saltzeko. Hari erauzketa bidezko biziraupen estrategia hori izugarri zabaldu zen 1825. urteaz geroztik. 1820ko hamarkadaren erdialde hartan, kotoi industriaren barrutietako egunkarietan, langileak kontrolpean izateko eta iruzur izurriteari aurre egiteko, ehungailu mekanikoaren aldarriak ugaritu ziren, behintzat. Tarteko irtenbidea izan zitekeen ehuleak enpresariak atondutako lantegietan batzea, ikuskatzaile baten begiradapean lan egin zezaten. Baina, Manchesterreko enpresari batek aitortu zuenez, lurrin makina bidezko ekoizpen mekanizatuak bermatzen zuen soilik langileek erritmo jarraituan eta fabrika sistemaren eskakizunei men eginez lan egitea.

Garai hartako enpresari kapitalistek mekanizazioaren onurak baliatzen ikasi zuten. Denbora jakin batean aurreikusitako oihal ekoizpena ziurtatzen zuen, eta hori ezinbestekoa zitzairen kontratuen konpromisoak betetzeko; produktibitate hazkundera nabarmena zen, gainera, denbora unitate berean hirukoiztu egiten baitzuen makinak ehun ekoizpena; ekoizpen materialen kontrola bermatzen zuten, eta langileen iruzurra ekidin; eta, oroz gain, beren nagusitasuna ezartzen zuten langileen diziplina ezaren aurrean. Izan ere, Malmen hitzak geurera ekarriz:

"Enplegatuen jarrera sumingarriak lau hilabeteko greba baten edo lapurtutako tonaka materialaren, gutxi erabilitako makinaren eta desagerturiko bobinen itxura har zezakeen. Bi estrategia horiek, fabrikatzailearen jabetzaren erabateko erabilpena eragozteaz gain, agerian uzten zituzten langile irregularraren arriskuak, hots, lehen britainiar kotoi-kapitalaren etsai porrokatua ziren".

Ehungailu mekanikoen ezarpena arrapaladan etorri zen, zenbait olatutan: 1820ko hamarkadaren erdialdean lehenengo, 1830eko hamarkadan nagusiki, eta 1840ko hamarkadan azkenik. 1850. urterako, eraldaketa zeharo gauzaturik zegoen. Langileek –neskak ziren hein handi batean– fabrika sistemaren diziplinapean jardungo zuten handik aurrera.

Adibide horiei jarraikiz, automatizazioak aurrera egin zuen, industria sektore ugarian, XIX. mendearen erdialdean. Izan ere, garai hartako enpresari batek aitortzen zuenez, "makina, peoia baino adeitsuagoa eta edukazio onekoa baita, erabilerrazagoa da, ordu mordo egiten ditu, ez du whiskirik edaten, eta ez da inoiz nekatzen".

Fabrika sistemak eta ekoizpenaren mekanizazioak ekonomia eta gizarte oinarriaren erabateko eraldaketa eragin zuten. Sarraskia izan zen industria-guneetako langile eta herri sektoreentzat. Langile kualifikatuak emakume eta umeekin ordezkatu ahala, soldatek behera egiten zuten izugarri. Erreminta ohikoekin lan egiten zuten ehuleak, industria langileen artean talderik handiena nabarmenki, bazterrean geratu ziren, gehienak miseria gorrian, ehungailu

## 2. KAPITALISMOA, INDUSTRIA IRAULTZA ETA XVIII.-XIX. MENDEETAKO ERALDAKETA ERRALDOIA

mekanikoaren lehiari ezin eutsirik. Langabeziak eta landa eremuetatik alde egindako nekazari desjabetuen etorrerak, halaber, soldaten murriztea indartu baino ez zuten egin. Faktore horiez gain, langabezia kronikoa, jarduera jakin batzuei lotutako sasoikotasuna eta, hortaz, diru sarreraren irregularutasuna, industria zehatz batean mekanizazioa sartzearen ondorioz kaleratzen zen langile kopurua, edo industrializazioarekin batera ziklikoki gertatzen hasi ziren krisi egoerak kontuan hartuz gero, “katakismo”aren ideia hurbiltzen gara, zeina Polanyik erabili baitzuen Industria Iraultzak langile klaseari nola eragin zion deskribatzeko.

Laburbilduz, industria kapitalismoaren hedapenarekin, Europako gizarteek beren ekoizpen baliabide teknikoen aurrerapen ikusgarria bizi izan zuten, baita aberastasun ekonomikoa sortzeko gaitasun biderkatu bat ere. Baina, era berean, gizarte antolaketaren oinarri tradizionalak suntsitu zirelarik, muturreko miseria eta zaurgarritasun egoera hedatu ziren langile sektoreen artean. Friedrich Engelsek kontrastearen berri eman zuen Ingalaterrako industria hirietako langile auzoak bisitatu ostean: irudi zuen britainiarrak beren gizatasunaren alderik zintzoena sakrifikatu beharrean aurkitu zirela zibilizazioaren mirari horiek guztiak erdiesteko.

Industria kapitalismoak auzi sozialaren agerpena ekarri zuen berekin. Ordukoak dira langile sektore zabalek bizi zituzten baldintzen berri ematen zuten Engelsen eta beste hainbaten kronikak: 14-15 –eta, hainbatetan, baita 16 eta 18 ere– orduko lanaldi amaigabeak; umeen laneratzea; oinarrizko premiak asetzen ez zituzten soldadak, askotan karitate publikora jotzera behartzen zutenak; etxebizitza kaskarretako logeletan eta sotoetan pilatzen ziren familien egoera; langile auzoen segurtasun eta higiene baldintza negargarriak; gaitasun izurrite berriak; fabriketako lan baldintza gogorak; edo langabezia, zahartzaro, laneko istripu edo alarguntasun egoeran zeuden langile familien zaurgarritasuna ziren, besteak beste, industrializazioaren bidetik zabaldu ziren paisaia sozial berriaren aztarnak. Horrez gain, askotan, zorpetzearen ondorioz langile familiak mailegatzaileen gehiegizko interesen menpeko zirela eta, Engelsek bikain deskribatu zuenez, oinarrizko produktuen aizuntzea eta espekulazioa ohiko praktikak ziren merkatuetan. Gauzak horrela, ez zaigu zaila egiten Polanyik deskribatzen zituen haien lekuan jartzea: “Beren ingurune kulturaletik deserrotuak eta hiri handietako miseriaren testuinguruan degradazio moralean, autoestimua galera eta hutsune kulturean murgilduak” aurkitzen ziren “etorkin apatikoak”, nekazari eremuetatik etorriak.

Testuinguru hartan sortu ziren herri sektoreen eta langileen antolaketaren lehen adierazpenak.



3

HERRI SEKTOREEN  
ELKARTEGINTZA  
PRAKTIKAK





Muga eta neurri gabeko arrazionaltasun ekonomikoaren aurka, beharrezan humanismoan eta bizitzaren defentsan oinarrituriko arrazionaltasuna eraiki zuen langile mugimenduak”.

(Andre Gorz, 1997)

### 3. HERRI SEKTOREEN ELKARTEGINTZA PRAKTIKAK

Elkartegintza edo asoziazionismoa izan zen industria kapitalismoak eragindako bizi baldintzen erasoaren aurrean langile eta herri sektoreen oinarritzako erantzuna. Thompsoni kasu eginez, esplotazioari eta zapalkuntzari aurre egiteko, batasuna izan zen langileen erantzun ia instintiboa. Kapitalismoaren gizarte oinarriak zeharo erroturik ez zeuden arokoak eta industria manufakturaren sistema hedatuz zihoan garai berekoak dira langileen elkartegintzaren lehen praktikak. XVIII. mendearen barrenean, jada, nabarmenak izan ziren "ofizioen batasuna" edo elkarlaguntzarako elkarteen moduko antolaketa moduen testigantzak.

Elkarte horiek gizarte zibilaren eremuan sortu ziren, eta kaltetuek berek beharrei erantzuteko eraturiko antolakundeak dira. Haietako asko jende xehearen ekimen espontaneoz sortu ziren, "ahalegin propioa" eta "elkarrekiko laguntza" moduko balioetan oinarriturik, manufakturaren garapenak eta babes sistema tradizionalaren desegituraketak eragindako ziurgabetasun gero eta handiagoari aurre egiteko. Lopez Castellanok azaltzen duenez, herri sektoreen miseria egoeraren aurrean estatu liberalak erakusten zuten arreta eskasaren aurrean, elkartegintza izan zen gizarte zibilaren erantzuna:

"Gremioak abolitzeko dekretuen ondoren, Erdi Aroko eta Aro Modernoko egitura korporatiboen desagertzea eta lan baldintza berrien hedapenak gizarte ehundurei eraso egin zieten, eta horrek hutsune arriskutsua utzi zuen Estatuaren eta gizabanakoaren artean. Ehundurak elkartasunaren bidez berriz josteko ahaleginak elkarteen agerpena ekarri zuen. (...) Estatu liberalak miseriari aurre egiteko eskaintzen zituen asistentzia politikak eskasak zirela ikusirik, eta, bide horretan, gizartea asaldatzeko arriskuaz oharturik, gizarte zibilak elkartegintzaren bitartez erantzun zuen; hala, handik sortu ziren elkarrekin eta zirkulu filantropikoak, elkarlaguntza oinarri zuten elkarrekin, erakunde erreibindikatioak eta motibazio erlijiosoak zituzten instituzio ugari".

Alde horretatik, XVIII. mendeko eta XIX. mendearen hasierako elkartegintzan, bulkada eta motibazio ugari aurkitzen dira. Batetik, sektore katolikoek eta korronte liberal-kontserbadoreek sustaturiko elkartegintza jarduera dago. Rosanvallonek adierazten duenez, soldaten lehia librearen sistemak langileen pobrezia egoeran zuen ardura ukatzeko joera zuten sektore horiek. Miseria egoeraren erantzukizuna langileena berena zen, oro har ez zutelako aurreikuspen senik eta ez zirelako xahutzea, mozkeria eta ustelkeria gisako jarrera okerrak zuzentzeko gai. Langileen erantzukizuna eta bertutea aldarrikatzearekin batera, langileen aurreikuspen ahalmena indartzera bideraturiko erakundeak sustatu zituzten. Enpresen eremuko sorospen instituzioak, elkarlaguntzarako elkarrekin edo aurrezki kutxak eratu zituzten, besteak beste.

Baina garai hartako elkartegintza praktikarik garrantzitsuena langileek berek garaturikoa izan zen. Britainia Handiko esperientziak erakusten duenez, Industria Iraultzaren lehen unetik beretik langileek ekintzailetasun ahalmen kontziente apartekoa erakutsi zuten. Hala, hasiera-hasieratik, izaera askoko elkarteak ugartu ziren, hala nola ongintzako elkarteak, adiskidantza elkarteak, elkarrekikotasun elkarteak edo box clubak, elkarlaguntzari eta elkarrenganako babesari bide emateko; lanbide oinarriko elkarteak, zeinak sindikatuen aurrekariak izan baitziren, artisauek eta langile kualifikatuen eskubideak eta estatusa babesteko; edo elkarte politikoak, askotan irakurketa klubak edo eztabaida klubak mozorropean, politikoki antolatzeko ahalmena, prentsa askatasuna, bilkura publikoen askatasuna edota bozka eskubidea aldarrikatzen zuten ekimenak antolatzeko.

Langile elkartegintzaren ernamuina elkarlaguntza eta elkarrenganako sostengua bideratzeko artisauek eta langile kualifikatuek garaturiko praktiketan aurkitzen da. Kolektibotasunaren baliabideetan saiatu ziren babesa topatzen. Lehen elkartegintza molde horren adibiderik esanguratsuenak elkarlaguntzarako elkarteak berak izan ziren. Lavilleren iritziz, lehen industria kapitalismoko langile klaseen autoantolakuntzaren eta etika praktikoaren ikur ziren norberarekiko errespetuan, kontzientzia politikoan eta independentzia ekonomikoan oinarritzen ziren elkarte haiek.

Sola i Gussinyerrek azaltzen duenez, mutualismoa, kooperatibismoaren antzera, gizartea antolatzeko modu kolektibo bat da, indibidualki lortu ezin diren helburuak askoren ahaleginaren eta baliabideen baturaren bidez lortzea xede duena. Ildo horretan, mutualismoaren logikak elkarren arteko babesa eta laguntza loturak, mekanismoak eta sareak instituzionalizatzeko saiakerari erantzuten dio. Logika horretatik eratorritzen den erakundeari dagokio elkarteko kide bakoitzaren arriskuen ondorio negatiboak bere gain hartzea, betiere bazkideturiko kide guztiek, solidarioki, gainontzeko kideen balizko arriskuen ondorio negatiboak jasateko ekarpena egiten badute. Muinean, elkartasunaren antolaketa erantzuten dioten elkarteak dira:

"Elkarte "mutualista" horien izateko arrazoia elkarrekiko aseguruan oinarritzen zen, hau da, kontratu gisa ulertuta, zeinean hainbat pertsonak, istripu edo ezbeharren bat gertatuz gero, elkarri kalte ordainak emateko konpromisoa hartzen baitzuten. Bazkide bakoitzaren ekarpena aldizkako kuota finko baten bidez egiten zen".

Elkarlaguntzarako elkarte haiek gizarte tradizionalako gremioen antolaketen, kofradien edo ermandadeen moduko erakundeekin zituzten konexioak ikustea erraza den arren, industria kapitalismoaren aroko mutualismo hark berrikuntza esanguratsuak zituen.

### 3. HERRI SEKTOREEN ELKARTEGINTZA PRAKTIKAK

Batetik, elkarri laguntza eskaintzeko modua urrundu egiten zen gremioen arteko karitatearen ulerkeratik, elkarrekikotasuna elkartasun irizpide berrien bidez gartzeko. Babesa eta laguntza, handik aurrera, ez ziren kofrade pobreen edo elkartetik kanpoko txiroen premietara zuzentzen. Langileen elkarrekikotasunak arriskuen aurreikuspen logika berri bati erantzuten zion: egoera antzekoan zeuden pertsonak ziren elkarrearen oinarria. Langile mutualismoan, denek egiten zuten diru ekarpena, edozein unetan haietako edonor laguntzaren onuradun izan zitekeela jakinik. Langileen arteko babes elkarreetan, aurreikuspenak etsipenari gaina hartzen zion, eta aurrezki solidarioak karitatea ordezkatzeko zuten.

Bestetik, borondatezko elkartearen bidez eraturiko antolakundeak ziren, bazkideetarako kideek, erregularri, diru ekarpen bera egiten zutelarik. Elkartearen, eskubideen eta betebeharren berdintasun erregimenean, denak ziren asegurutun eta asegururatzailerak, eta bazkideak berak ziren elkarrearen administrazioaren kudeatzaileak.

Hirugarrenik, gremio eta kofradia tradizionalen aldean, Industria Iraultzako elkarlaguntzarako elkarrekin babes eremu zabalagoak zituzten. Heriotza eta ehorzketa sostenguaz gain, langileen elkarrekin beste zaurgarritasun egoera batzuetara ere bideratzen zuten laguntza, hala nola gaixotasunak, langabezia, zahartzarua, alarguntasuna edo umezurztasuna.

Azkenik, langileen elkarlaguntzaren elkartearen bereizgarri nagusia haien barne funtzionamendu demokratikoa zen. Elkarte gehien-gehienetan, arau orokorra zen ordezkariak bazkideen artean hautatzea, bozka bidez, eta erabakiak batzar arautuetan hartzea.

Aztertu ditugun ikerlarien ebidentziek erakusten dutenez, litekeena da elkarlaguntzarako elkarrekin edo, adiera zabalagoan, elkarrekiko babes egituratzeko modu instituzionalizatuak izatea langileen elkartegintza modernoaren lehen adierazpideak. Tokian tokio nabardurak badauden arren, elkarte horiek antzera agertu eta hedatu ziren, bolada ezberdinetan, industria kapitalismoa zabaldu zen herrialdeetan. Ortiz de Orruñoren da azalpen hau:

"Antzinako Erregimenaren krisiaren bidetik eratorritako gizarte egituren eraldaketa azkarrak aurreikuspen sistema tradizional bakunaren eraispena eragin zuen. Ekoizpen molde kapitalisten hedapenak eta indibidualismo liberalaren garaipenak instituzio korporatiboaren elkartasuna desegin eta betebeharrak komunitarioak erlaxatu zituzten. Gizarte laguntza egituratzeko botere publikoaren gaitasun eza tarteko, elkartasun horizontalean oinarrituriko kontratu izaerako elkarlaguntzarako sistemak eratu behar izan ziren gizarte babes antolatzeke. Oinarri horien gainean sortu ziren XIX. mendearen hasieratik aurrera mutualitate ugari Europa osoan barrena".

Langile sektoreek garatu zuten antolaketa molde horren garapenaren berri Thompsonen bidez izan dugu. Garai hartako iturri estatistikoek zuhurtzia eskatzen badute ere, Britainia Handian, Adiskide Elkarrekin afiliatuak 648.000 inguru ziren 1793an, 704.350 1803an eta 925.429 1815ean. Izaera horretako elkarrekin langile mugimenduaren hastapenean izan zuten garrantzia agerikoa da, beraz. Garai hartako langileen artean elkarrekinotasun, mutualitate eta elkartasun ethosa erroturik zegoela erakusteaz gain, elkarrekin horiek esanguratsuak ziren, langile antolakundeen hainbat ezaugarri aurreratu baitzituzten, kooperatibak barne:

"Mutualitate elkarrekin egitura zelular sinplean, haien egunero-ko elkarlaguntza ethos biziaren oinarrian –gero *trade union*-tan, kooperatibetan, Hampden klubetan, elkarrekin politikoetan eta logia kartistetan– modu konplexuagoan erreproduzituko diren ezaugarri ugari ikus ditzakegu".

Elkarrekin haiek esangura are handiagoa izan zuten langile elkarrekinaren debekuen testuinguruan. Industria Iraultzaren lehen aroan, indarrean egon ziren Britainia Handian eta Europako gainontzeko herrialdeetan. Elkarrekinaren goraldiari langileen elkarrekin eta bilkurak debekatuz erantzuten zieten zenbait estatuk. Debekuak, nagusiki, Frantziako 1789ko iraultzaren ostean zabaldu ziren, elkarrekin politikoaren jardura iraultzaileak eta asmo erreformistak herri sektoreen artean hedatuko ote ziren beldurrez. Agintean ziren liberalek laster batean zabaldu zuten debekuen irismena langileen elkarrekin praktika orotara. Kapitalaren eta lanaren ikuspegi harmonikoa, askatasun indibiduala eta estatu minimoaren printzipioak ardatz harturik, langileen elkarrekin praktikak debekatu zituzten, ekonomiaren dinamika libreari trabak ezartzen zizkiotelako, eta lanaren prezioa merkatuaren lege naturalen kontra baldintzatzen saiatzeak enpresariaren askatasuna murrizten zuelako.

Premisa horien pean, estatuen kode liberalek aurpegi bikoitza erakusten zuten langileen elkarrekinaren praktiken aurrean. Alde batetik, lanbide elkarrekin, *trade union* delakoak edo fabriketako erresistentzia elkarrekin eta sindikatuak debekuen eta errepresioaren jopuntuan zeuden, 1839ko Espainiako zigor kode liberalak argiki islatzen zuenez "gauzen prezioa aldatzeko" jarduten baitzuten, eta "lanaren prezioa gehiegikeriaz garestitzeko edo euren baldintzak erregulatzeko" koordinatzen baitziren. Bestetik, ordea, elkarlaguntzarako elkarrekin onartu egiten ziren, eta, hainbatetan, baita sustatu ere, betiere elkarlaguntza jardueretara mugatzen baziren, afera politikoetan eta lan harremanetan murgiltzen ez baziren, eta jardura esparrua maila lokalean mantentzen bazuten.

Legedi horiek guztiek, maila batean zein bestean, langile elkarrekinaren garapena baldintzatu zuten. Britainia Handian, 1824. urtera arte egon ziren indarrean. *Trade union* delakoan garapena oztopatzeko eraginkorrak ez zirela jabetu zirenean, eta, bereziki, legez kanpoko indarkeria sindikala langile klaseen artean ospea irabazten ari zela ohartu zirenean indargabetu zituzten *Combination Acts* delakoak. Britainia

### 3. HERRI SEKTOREEN ELKARTEGINTZA PRAKTIKAK

Handia izan zen lehena langile elkarteak onartzen. Espainiako estatuan, esaterako, debekuak ez ziren indargabetu 1887ko elkarten legea argitaratu zen arte.

Zalantzarik ez dago, hortaz, elkarlaguntzarako elkarteek zeresan handia izan zutela langile klaseen lehen antolaketa esperientzietan. Lege estaldura baliatuta, asistentzia funtzioez gain, askotariko jarduerak garatu ohi zituzten. Zenbait ikerlanek adierazten dutenez, Frantzia, adibidez, langileen korporazio askoz zabalagoen eta klandestinoen aterki publikoa izan ohi ziren elkarlaguntzarako hainbat elkarte, ofizio-lanbideetan arautegiak ezartzeko eta lan baldintzak hobetzeko borroka antolatzen zituzten heinean. Britainia Handian ere, halako elkarteek beste trade union batzuen estalki gisa jarduten zuten. Eta antzera gertatu zen aurrerago Katalunian ere. Greba aroetan, elkarlaguntzarako elkarteek erresistentzia kuxkak antolatzen zituzten, edo lan erresistentziarako erakundeen ordezkotzat bilakatu ziren jazarpen ziklo gorenetan.

Laburbilduz, langileen lehen elkartegintza eredu horren ezaugarri bat aipatzekotan, haren izaera poliedrikoa aipatuko genuke, hau da, elkarte berean funtzio eta praktika desberdinak garatu zitezkeen. Hala, ohikoa izan zitezkeen elkarte berean funtzio mutualistak, lan erresistentziakoak eta praktika kooperatiboekin lotura estua zuten funtzioak garatea. Beraz, langile elkarte batek lan baldintzen alde borrokatzeko erresistentzia jarduerak antolatu zitzaizkeen, elkarri laguntzeko sistema bat garatu zezakeen, eta, aldi berean, bazkideen hornidurarako elikagaien biltegiak antolatu edo langileen zuzendaritzapeko lantegiak martxan jar zitzaizkeen. Thompsonnek 1812ko ehuleen elkartearen adibidea eskaintzen digu, zeina *Laguntza parlamentarioa lortzeko eta mekanismoak hobetzeko mekanika sustatzeko elkarte* izenez eman baitzen ezagutzera. Elkarte horrek, asistentzia, langabeziarako babesa eta grebak antolatzeaz gain, manufaktura lantegiak martxan jarri zituen, bere kabuz. Robert Owen aroaren aurreko *trade union* batzuen esperientzia esanguratsua ere aipatzen du. Greba betean, elkarteko langileak enplegatzeko lantegiak sortu, eta produktuak merkaturatzeko biltegiak eratzen zituzten. Katalunian, Bartzelonako Kotoi Ehuleen Elkarte ere adibide argia da, 1838an langileek sortua. Langileen elkarte hark, unean uneko gobernuaren xedapenaren arabera, erresistentzia jarduerak antolatu zituen, elkarlaguntzarako praktikak garatzearekin batera, batzuetan era klandestinoan eta besteetan era legeztatuan. Elkarteak, 1844. urtean, Bartzelonako Kotoi Ehuleen Fabrika Konpainia sortu zuen, udal mailegu bat baliatuta, ekoizpenaren mekanizazioak eragindako langabeziari aurre egiteko. 200 langile enplegatzen zituen lantegi kooperatibo hark, eta 1848 urte arte eutsi zion bere jarduerari.



4

HASTAPENENKO  
PRAKTIKA  
KOOPERATIBOAK





Kooperatibak langileriaren ekintzatik espontaneoki sortutako elkarteak dira, industria iraultza hedatzen ari zen garaian eta herrialdeetan”.

(Paul Lambert, 1961)

#### 4. HASTAPENENKO PRAKTIKA KOOPERATIBOAK

Azterlanaren une honetan, gogoan izan beharreko ideia da kooperatibismoa langile klaseek garatu zituzten lehen antolaketa esperientzien garaikidea dela. Esperientzia haiek Industria Iraultzak eta kapitalismoaren hedapenak eragiten zituzten bizi eta lan baldintzen erasoari erantzutea zuten helburu, eta lehen esperientzia kooperatiboak langileen eta herri sektoreen bat-bateko ekimenez sortu ziren, elkarlanerako senari bide emanez, askotariko beharriaz erantzuna emateko.

Aztergai izan ditugun egileen arabera, XVIII. mendearen erdialdean jada baziren zenbait kooperatiba esperientzia. Lambertek, testigantza zahar gisa, 1760ko Ingalaterrako ekoizpen kooperatibak ditu aipagai: Chatham eta Woolwichen langileek ustiatu eta kudeatutako irin errotak. Esperientzia horiei 1761eko Eskoziako Fenwick hiriko ehuleen kooperatibaren sorrera gehitzen diote beste aditu batzuek; lan tresnak modu partekatuan erosteko eratu zuten langileek, eta, 1769an elikagaien bildegia erosteko urratsa egin eta gero, Gowan Victualing Society sortu zen, 1777an.

Esperientzia horiek guztiak esanguratsuak dira, Rochdaleko esperientziaren aurretik kooperatiben errealtate baten berri ematen digutelako. Rochdale aurreko kooperatiben ziklo hura, bestalde, bi unetan banatzen da: batetik, Owen fasea, 1825etik 1835era bitartean garatu zen kooperatiben mugimendua izendatzeko erabiltzen dena, eta, bestetik, Owen aurreko kooperatiben aroa. Lehen kooperatiba haiek, Monzonek deskribatzen duenez, guztiz espontaneoki sorturiko elkarteak ziren; langile sektoreetatik eratorritako ekimenak ziren; bereziki babes edo defentsa izaera zuten, premia zehatzak asetzeko helburu praktikoarekin, gizarte eraldaketarako bestelako helburu handiagorik gabe; eta bazkideak materialki saritzeko funtzionamendu arauak –adibidez, erosketen arabera soberakinen banaketa, zeina Rochdaleko esperientziaren arrakastaren gakoa izan baitzen– aplikatzen zituzten.

Horrez gain, Monzonek kooperatiba izaerako elkarte haien “klase homogeenotasuna” azpimarratzen du. Alegia, XIX. mendearen bigarren erdialdean landaguneetan eta hirietan klase ertainek sustatu zituzten kreditu kooperatibekiko aldea nabarmentzen du. Monzonek egiten duen ezaugarritze horrek, ordea, hainbat ñabardura eta zehaztapen behar ditu, denak ere garrantzitsuak lehen kooperatiben oinarrian zeuden gogo eta xedeak ondo ulertzeko.

Thompsonen eta Hobsbawmen analisien bidetik, baieztatu daiteke 1790 eta 1830 arteko aroan eratu zela langile klasea bere adiera modernoan. Epealdi horretan, langile klasearen kontzeptuak esanahi berria bereganatu zuen, herri sektoreen parte ziren askotariko estratu sozialak biltzen hasi zen heinean. Alde batetik, klase kontzientzia garatu zen, langile taldeen arteko interes partekatuen bizipena indartu ahala, eta interes nortasun hori gainontzeko klaseen interesekin kontrajartzerakoan. Beste alde batetik, berariaz langile izaerakoak ziren lehen erakundeak egituratu ziren. Garai hartan hasi ziren nabarmentzen elkarlaguntzarako elkarteak,

lanbide sindikatuak eta izaera kooperatibako elkarteak; eta hamarkada hartakoak dira langileen manifestazio jendetsu eta diziplinatuak, grebak, ekintza zuzeneko praktikak edota langileen egunkariak eta aldizkariak.

Baina, eskalari, ikuspegiei edo teknologiaren bilakaerari dagokionez, Britainia Handiko gizartea oraindik ez zen gerora bilakatuko zen estatu industrialia. 1830eko britainiar gizartea Industria Iraultzaren hastapenetan zegoen gizarte baten isla zen, nekazaritza oinarrikoa nagusiki; industria kontzentrazio erraldoiak garatu gabe zeuden oraindik, eta industriagune esanguratsuak eskualde bakanetan zeuden, haietako hainbat, gainera, fabrika mekanizatuaren aurreko aroan. Ohartu gaitezen, hortaz, garai hartako langile klasea ez zela ondorengo industria kontzentrazio handien testuinguruko bezalakoa. Are gehiago, oso eztabaidagarria da fabriketako eskulangileek osatzea langile mugimendu horren muina. 1830ean, langile industrial tipikoak ez zuen lantegi edo faktoria handietan lan egiten, baizik eta artisau edo langile kualifikatu gisa, tailerretan edo etxean, edo peoi gisa, aldi baterako eta noizbehinkako lanpostuetan.

Garrantzitsua da ulertzea, bestalde, artisau edo langile kualifikatuen eta peoi edo kualifikaziorik gabeko langileen artean zegoen estratifikazioa. Artisauak eta langile kualifikatuak klase behe-ertain moduko bat osatzen zuten, nola-halako langileen arteko aristokrazia bat, Hobsbawmen hitzetan. Peoi eta langile ez-kualifikatuak, berriz, aldizkako eta gaizki ordaindutako lanetan aritzen ziren eta, auzoetan, gizatalde marjinatu eta azpiproletarioekin, karitatetik eta pobreen legeen baldintzapean bizi zirenekin, partekatzen zuten espazioa.

Goi mailako langileek langilegoaren bizi baldintzen estigma orokor berberak zeuzkaten, hala nola segurtasun eza, ziurgabetasuna eta pobrezia arriskua, baina bestelako egoera bat zuten. Aldea nabarmena zen baldintza ekonomikoen mailaketan, soldata altuagoak eta erregularragoak baitzituzten, baita bizi ziren auzoen ezaugarrietan, eta maila politiko eta kulturaleran ere. Thompsonnek garai hartako lekukotza baten bidez argitzen digu errealitate hori:

"Londresko ekialdeko Westendeko langile kualifikatuen auzotik kualifikaziorik gabeko langileen auzoetara igarotzerakoan, aldaketa moral eta intelektuala hain da handia, non beste herrialde bat ematen baitu, eta jendeak beste arraza batekoa... Artisau guztiek ia gogoko dute politika. Ikasiak eta gogoetatsuak dira, eta, hortaz, estatuan duten garrantziaz jabetzen dira... Langile kualifikatu gabeak bestelako jende mota bat dira. Lekaioak bezain gutxi politizatuta daude, eta, iritzi demokratikoei suharki eutsi beharrean, inolako iritzirik ez dutela dirudi, edo, iritzirik baldin badute, "gauzak dauden bezala" mantentzeko joera dute; herri langilearen goraldiaz ezer ez".

#### 4. HASTAPENENKO PRAKTIKA KOOPERATIBOAK

Estratifikazio horrek guztiak isla argia zuen langile klaseen elkartegintza mugimenduan. Izan ere, garai hartako testigantzak aintzat hartuz, sindikatuak, kooperatiba izaerako elkarlaguntzarako elkarlagintza langile kualifikatuaren antolakuntza moduekin parekatzen ziren. Bide batez, ez da harritzekoa ere, sektore horiek baitziren aurrezteko ahalmen minimoa eta, hortaz, bazkidetza kuotak ordaintzeko ahalmena zutenak.

Langile estratu horien ezaugarri nagusia lanbidearen jardunean ezinbestekoak ziren jakintzak eta trebetasunak ahalbidetzen zuten espezializazioaren jabe izatea zen. Haien lanak halako prestigio eta estatus bat eskaintzen zien, eta ekoizpen prozesuan bazuten beren lanaren gaineko nolabaiteko kontrola. Horrek guztiak nola-halako autonomia bat ziurtatzen zien ugazabekiko zein peoiekiko, eta horren oinarrian bermatzen zituzten soldata egoki eta egonkorrak eta, oro har, bizi baldintza duinak. Industria Iraultzak sortu zuen testuinguru berrian, ikusten zuten berrikuntza teknologikoen eta merke lan egiteko prest zegoen jende andanak mehatxupean jartzen zituztela euren lan kategoria eta bizi maila. Xedapen liberalen ondorioz, lanbideen jarduna arautzen zuten lege eta tradizioen babesa galtzen zuten. Eskubide politikorik ez zuten, gainera, eta oharitzen ziren estatuen boterea beren sindikatu eta elkarlagintza desegiteko erabiltzen zela. Bidegabekeriaren bizipena indartu baino ezin zuten egin horrek guztiak. Thompsonen begirada argigarria da beste behin:

"Autoritaterik eta betebeharrak tradizionalki gabeko ugazaba klase baten gorakada; ugazabaren eta gizabanakoaren arteko distantzia hazkorra; esplotazioaren gardentasuna haren aberastasunaren eta botere berriaren iturrian bertan; maila sozialaren (estatusa) galera, eta, oroz gain, langilearen independentziaren aurkako eraso, ugazabaren ekoizpen tresnekiko erabateko dependentsia; legediaren alderdikeria; familia ekonomia tradizionalaren haustura; diziplina, monotonia, lanaldiaren luzera eta lan baldintzak; denbora librearen eta ohiko dibertsio moduen galera; gizabanakoa instrumentu huts bilakatzea".

Hortaz, elkartegintza, bere adierazpen desberdinetan, artisauek eta langile kualifikatuek garatutako antolakuntza praktika bat izan zen, funtsean desklassatzearen mehatxuari aurre egiteko eta sistema ekonomiko eta sozial berririk eratortzen ziren arriskuen aurrean babes mekanismoak antolatzeke. Estatus mailari eusteko eronkan, baliabide indibidualak nahikoak ez izanik, langile sektore horiek irtenbide kolektiboetara jo baino ezin zuten egin. Hobsbawm dugu oraingoan gidari:

"Haien abantaila ekonomikoak eta kategoria mantentzea antolakuntza gaitasunaren araberakoa zen: sindikatuaren, konsumitzaileen elkarte kooperatibistetan, elkarlaguntzarako eta

aseguru partekatuetako elkarteetan. Bitarteko horiei esker, eta horiei esker soilik, manten zezakeen "peoi"engandik bereizten zuten eskusibotasun erlatiboa, eta, neurri bateraino, segurtasun ezetik babestu".

Hala, lehen sindikatuak edo ofizio elkarteak (*trade unions*) artisauen eta langile kualifikatuen antolaketatik sortu ziren. Trebakuntzaren eta esperientzia metatuaren bidez eskuratutako trebetasunak indargune gisa erabiltzen saiatu ziren, ekoizpen prozesuan zuten ordezkazintasunari eta ofizioen deskualifikazioari aurre egin eta beren kategoria babesteko bitarteko nagusi bilakatuz. Askotariko bideak erabili zituzten norabide horretan: legearen babesa eta arbitrajea bilatzea; grebak edo lan abstentzio kolektiboak klandestinoki antolatzea; enplegu poltsen kontrola hartzea; udal agintarien gaineko presioa; tailerretako eta fabriketako ugazabak izutzea; edota ikaskuntzarik gabe ofizioan sartzen ziren langileak edo ezarritako soldataren azpitik lan egiteko prest zeudenak ikaritzea. Bide baketsuak zein indarkeriazko ekintza zuzenak erabili zituzten helburu horri begira. Elkarlaguntzarako elkarteak, berriz, prebentzio eta babes mekanismo gisa antolatzen ziren, gaixotasunak, langabezia, zahartzaroa edo ezintasunak sortzen zituzten bestelako gertaeren aurrean. Izaera kooperatiboko elkarteen bidez, aldiz, espekulatzailak erditik kendu eta oinarrizko elikagaiak prezio eta kalitate egokian eskuratzea ahalbidetzen zen, edo, bestela, lanbidean patroiekiko independentziaz jarduteko lan tresnen hornidura era partekatuan egiten zen.

Ikuspegi hori guztia aintzat hartuta, ikerlari askok aipatzen dute langileen lehen elkartegintza praktika horren izaera helburu defentsiboetara eta berehalako beharrizan konkretuak asetzerara mugatzen zela. Baina ikuspegi zabalagoa behar du afera honek. Izan ere, tentuz aztertuta, suma daiteke xede defentsibo eta asistentzialeraino gain langileen lehen elkarte horiek bestelako gizarte eredu baten gogo eta balio sozialen eramaileak zirela. Hala, langilearen degradazio bizipenaren aurrean, zeina independentzia galerarekin eta kapitalistarekiko erabateko dependentziarekin lotzen baitzen, kolektiboki eraikitako lan autonomo eta emantzipatuaren ideala proposatzen zuten elkartegintzak, langileek beren lanaren eta bizi baliabideen kontrol soziala berreskura zezaten testuinguru berrian. Elizaren karitatetik edo pobreen laguntzetatik biziraun behar izateak sortzen zuten autoestimu galeraren aurrean, elkartegintzak duintasunez, beren ahaleginari eta inizatibari esker, bizi-modua beren kabuz aurrera ateratzeko baliabideak eskaintzen zizkien artisauari eta langile kualifikatuari. Eta, halaber, sindikatuen eta elkarteen aldarrien gainetik (legezko gutxieneko soldata ezartzea; emakume, nerabe eta haurren lana mugatzea; mekanizazioak langabeei lana topatzeko ugazabaren hitza betearaztea; lana ohiko soldaten azpitik kontratatzearen debekua; edo lanbide sindikatuetan bazkidezteko eskubidea), industriaren garapena oinarri etiko batzuen gainean arautzeko eta etekin ekonomikoa pertsonen beharrezanaren mende ezartzeko aspirazioa gailentzen ziren.

#### 4. HASTAPENENKO PRAKTIKA KOOPERATIBOAK

Langileen lehen elkartegintza hartan, kapitalaren logikatik at kokatzen den ekonomia-riaren ikuskera moral eta etiko baten ernamuinak aurki daitezke. Izan ere, etekina goersten zuen arrazionaltasun ekonomikoaren aurrean, langileen elkartegintzak humanismoan eta bizitzaren defentsan oinarrituriko bestelako arrazionaltasun bat sustatzen zuen. Kapitalismoak hauspotzen zuen langileen arteko lehiari elkartasunean, elkarrekotasunean eta elkarlaguntzan oinarrituriko kultura kontrajartzen zion langileen elkartegintzak. Eta, ikuspegi indibidualisten aurka, langileen elkartegintzak, bere autoantolakuntza praktiken bidez, bere erakundeen eta diziplinaren bidez, balioa ematen zien ethos kolektiboari eta balio komunitarioei. Laserrek, argi eta garbi, langile etika baten oinarriak ikusten ditu:

"Lanaren balio moralaren baieztapena da, apalki bada ere bizi-modua bere kabuz aurrera ateratzeko gai den gizabanakoaren harrotasuna sortzen duena, ondo egindako lanarekiko maitasuna ereiten duena eta langilearekiko errespetua aldarrikatzen duena. Elkartasunaren baieztapena da, zeina funtsezko beste balio moral bat baita, ekintza kolektibo orok eskatzen duen diziplinaren betebeharrarekin, batasunari oztoporik ez jartzekoa eta elkarri laguntzekoa. Justizia sozialaren premiaren aldarria da, justiziarik gabe ziria izan baitaiteke elkartasuna. Azkenik, klase kontzientzia da, klaserik zigortuenak bereganatu behar duen rol historikoaren –askatzailea eta eraikitzailea– konbikzioa duena".

Aranzadik, Laserren bidetik, balioa ematen dio langileen erreakziotik sortzen den ikusmolde moral espezifikoiari. Haren ustez, "motibazio interesatuaz" gain, erreakzio morala da langileen elkartegintzaren motibazio garrantzitsua; agian, ez zuten langile guztiek partekatzen, baina hauteman zitekeen mugimenduko sektore aktiboenen artean. Moral sozial hori balio nagusi hauetan oinarritzen du:

1. Pertsonaren balioaren eta gizabanako bakoitzari zor zaion errespetuaren zentzu sendoa. Iturri horretan oinarriturik berresten dira gizaki ororen duintasun berdintasuna, emantzipazioa eta hazkunde pertsonalaren aldarria. Jarduera ekonomikoa gizakiaren zerbitzura ezartzeko ikuspegia nagusitzen da ildo beretik.
2. Lanaren ohorea, haren bitartez lortzen baitu gizabanakoak baliagarri bilakatzeko besteendako eta lanaren bitartez eta autodiziplinaz garatzen baitu bere burua. Hortik dator "ondo egindako lan"aren balioa.
3. Azpiratutako klaseen rol historikoaren konbikzioa. Hari horretatik elikatzen da langile klaseak beren patuaren eta bizi norabidearen burujabe bilakatzeko aldarria, eta self help edo "autolaguntza" printzipioaren bidez hobekuntza materiala ez ezik emantzipazioaren bidea jorratzeko konbentzimendua.

4. Elkartasunaren zentzua, ahulek eskura duten eragin-indar bakarra eta sustatu nahi diren giza harreman sozialen muina delako. Ekintza kooperatiboan, egitasmo partekatuaren mesedetan norbanakoen indarrak eta baliabideak batera jartzen direnean (bat guztiontzat) eta elkarreak bakarka lortu ezin liratekeen onurak kideen eskura jartzen dituenean (guztiak batentzat) agertzen da elkartasunaren morala.
5. Justiziaren ezbairik gabeko eskakizuna, hura gabe elkartasuna hauskorra izango bailitzateke.

Langileek lehen elkartegintza praktika haietan islatu zituzten balioen oinordekoa izan zen, zalantzarik gabe, kooperatibismoa.

The background of the page is a solid magenta color. It features a series of thin, white, curved lines that sweep across the page from the top left towards the bottom right, creating a sense of motion and depth.

5

AZKEN HITZA





## 5. AZKEN HITZA

Egin dugun ibilbidearen ostean, ez dirudi zaila argudiatzea industria kapitalismoaren eraginez sortu zen gizarte egoerari erantzuteko langile klaseek egituratutako lehen elkartegintza praktiketan aurkitzen direla kooperatibismoaren sustraiak.

Ekinbide praktikoan arreta jartzen badugu, lehen elkartegintza hark kooperatibismoaren ondorengo garapenean izan zuen garrantzia nabarmena da. Ikuspegi eta praktika kolektiboak balioa eman zieten; ezinbestekoak izan ziren langileek beren aferak beren kabuz kudeatzen ikasteko. Ildo horretan, autogobernu komunitarioaren eskola praktikoak izan ziren, zeinetan langileek abileziak garatu eta disiplina ohiturak doitzen baitzituzten, diru funtsen administrazio egokia egiteko, bilkuren prozedura ordenatua bideratzeko edo laguntzen banaketa irizpideak zehazteko. Ezin ahaztu, bestalde, elkarte haien dinamikan trebatu zirela gerora erakunde kooperatiboan eta sindikalen gidaritza hartu zuten langileak. Eta, nola ez, Rochdaleko kooperatiba esperientziaren aitzindariak lehen kooperatiba haien akatsen eta lorpenen irakaspenak baliatu zituztela eredu kooperatiboaren arrakasta bermatu zuen printzipio eta arauen sistema zehazteko.

Baina elkarte haien ekarpenaren dimentsio praktikoaz harago, kooperatibismoaren ezaugarri bereizgarrietako asko XIX. mendeko elkartegintzaren aspirazio, balio eta ekinbideetan aurki daitezke. Borondatezko elkarketa librearen nozioa; elkartasuna, elkarrekikotasuna eta elkarlaguntza balioak; ahalegin propioaren balioa; bokazio demokratikoa; berdintasunaren eta justiziaren izpiritua; kapitala giza beharrezanaren menpe azpiratzeko bulkada; lanaren eta bizi baliabideen gaineko autonomia eta kontrola irabazteko bide kolektiboak topatzeko grina... Horiek guztiak gorpuzten zituzten langile elkartegintzaren nahiak eta balioak, zeinak sistema kooperatiboak –sistematizatuz eta instituzionalizatuz– bere egin eta modu berri batean garatu baitzituen.

Idazlan hau amaitzeko, lehen langile elkartegintzak eredu kooperatiboaren sorreran duen lekua azpimarratzeko, Lavilleren gogoeta ekarri nahi genuke gurera. Ikerlari horrek dioenez, lehen elkartegintzaren eragina aintzat ez hartzeko joera dute langile mugimenduaren ernalkuntzaren gaineko azterlanek. Langile elkardeen hurbilpena modu ia anekdotikoan egin izan da, eta ekonomiaren eta politikaren subjektu moduan inolako garrantzirik aitortu gabe. Kooperatibismoaren azterlan klasiko askotan ere antzeko joera nabarmentzen dela gehituko genuke gure alde-tik. Langile elkardeen ekarpena gutxietsia da, haien berehalakotasuna eta izaera espontaneoak aitzakia hartuta, eta XIX. mendeko lehen hamarkadetako sozialismo asoziazionistaren korrontean kokatzen diren pentsalarien formulazioetan jarri ohi da arreta. Ikuspegi hori zalantzan jarri beharrekoa da, ordea. Aztertu dugunez, eredu kooperatiboaren sorreran, langile elkartegintzari pisu handiagoa aitortu beharko genioke pentsalari sozialistekin izan zuten elkarrekiko eraginean. Izan ere:

"Elkartegintza utopiazaleetan inspiratzen bada, haien aldean ere desberdina da. (...) Haien doktrinak bere egiten dituzten langileak, aldi berean, ideia horien hedatzaileak eta disidenteak dira, eztabaidatuz moldatzen baitituzte, doktrina horiekin erreforma ekonomiko eta politikoak bideratzeko, zeinak praktikaren arriskupean garatuko baitituzte".

Aipua interesgarria da, bestalde, atek zabaltzen dizkiolako sozialista asoziazionistek kooperatiben sorreran izan zuten eraginaren azterketari. Hurrengo liburuxkaren gaia izango da hori.



# BIBLIO- GRAFIA



## BIBLIOGRAFIA

**Altuna, L. (2008).** *La experiencia cooperativa de Mondragón. Una síntesis general.* Eskoriatza: Lanki.

**Aranzadi, D. (1976).** *Cooperativismo industrial como sistema, empresa y experiencia.* Bilbao: Universidad de Deusto.

**Aranzadi Telleria, D. (1988).** Orígenes históricos y asentamientos ideológicos del asociacionismo socioeconómico. In *II Congreso Mundial Vasco de Cooperativismo* (pp. 23–47). Bilbao: Universidad de Deusto.

**Arnabat Mata, R. (1994).** Las sociedades de socorros mutuos en la Catalunya rural 1879-1939. In S. Castillo (Ed.), *Solidaridad desde abajo* (pp. 87–105). UGT, Centro de Estudios Históricos.

**Arnabat, R. (2016).** Entre el oficio y el sindicato: los toneleros españoles (1871 y 1932). *Historia Social*, 84, 39–57.

**Bengoetxea, A. (2014).** Krisia eta enpleguaren lehentasuna kooperatibetan. *Revista Vasca de Economía Social = Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria*. No. Extra 0, 2014, 97-116.

**Castillo, S. (1994).** Las sociedades de socorros mutuos en la España contemporánea. In S. Castillo (Ed.), *Solidaridad desde abajo* (pp. 1–29). UGT. Centro de Estudios Históricos.

**Cervera Paz, Á. (2010).** Percepción cooperativa de las cofradías de pescadores: un estudio empírico. *REVESCO, Revista de Estudios Cooperativos*.

**Cole, G. D. H. (1964).** *Historia del pensamiento socialista I. Los precursores (1789-1850)*. México D.F.: Fondo de Cultura Económica.

**Engels, F. (1845/2020).** *La situación de la clase obrera en Inglaterra.* Madrid: Akal.

**Enrech, C. (2010).** El sindicalismo textil: entre la solidaridad y la exclusión. *Historia Social*, 68, 89–113.

**Erdal, D. (1999).** *The psychology of sharing: An evolutionary approach.* St. Andrews University.

**Fauquet, G. (1980).** *O sector cooperativo.* Livros Horizonte.

**Federici, S. (2017).** Caliban eta sorgina. Emakumeak, gorputza eta metatze primitiboa. Elkar, Jakin.

**Gadea Soler, E., & Atxabal Rada, A. (2015).** Presentación del monográfico: las sociedades cooperativas construyen un mundo mejor. *REVESCO. Revista de Estudios Cooperativos*, 117, 7–11.

**Gaminde, E. (2017).** *La doctrina social cristiana y el cooperativismo vasco: Una alternativa para el cambio.* Madrid: Dykinson, S.L.

**Garau Rolandi, M. (2015).** *Entre la utopía y la supervivencia: El desarrollo y la diversidad de las cooperativas de producción y trabajo en la Catalunya urbana e industrial (1864-1936)*. [Tesis de doctorado, Universidad de Barcelona].

**García Insausti, O. (2006).** *La participación en la empresa. Perspectiva histórica, perspectiva crítica y perspectiva cooperativa.* Eskoriatza: Lanki.

**Gide, C., & Rist, C. (1973).** *Historia de las doctrinas económicas desde los fisiócratas hasta nuestros días.* Madrid: Instituto editorial Reus.

**Gorz, A. (1997).** *Metamorfosis del trabajo.* Madrid: Sistema.

**Hobsbawm, E. (1987).** *El mundo del trabajo. Estudios históricos sobre la formación y evolución de la clase obrera.* Barcelona: Crítica.

**Hobsbawm, E. (2011).** *La era de la revolución 1789-1848.* Barcelona: Libros de historia.

**Hobsbawm, E., & Pochtar, R. (1979).** *Trabajadores: estudios de historia de la clase obrera.* Barcelona: Crítica.

**Holyoake, G. (1973).** *Historia de los Pioneros de Rochdale.* Zaragoza: AECOOP.

**Kaplan, A., & Drimer, B. (1981).** *Las cooperativas. Fundamentos-Historia-Doctrina.* Buenos Aires: Intercoop.

**Lambert, P. (1961).** *La doctrina cooperativa.* Buenos Aires: Intercoop.

**Lasserre, G. (1972).** *El cooperativismo.* Barcelona: Oikos-tau.

**Laville, J. L. (2015).** *Asociarse para el bien común.* Barcelona: Icaria.

**López Castellano, F. (2003).** Una sociedad de cambio y no de beneficencia. El asociacionismo en la España liberal (1808-1936). *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 44, 199–228.

**Malm, A. (2020).** *Capital fósil. El auge del vapor y las raíces del calentamiento global.* Madrid: Capitan Swing.

**Martínez Charterina, A. (2016).** *La cooperativa y su identidad.* Madrid: Dykinson, S.L.

**Martínez Gallego, F.-A. (1994).** Disolución gremial y constitución societaria: los términos del vínculo. Valencia, 1834-1868. In S. Castillo (Ed.), *Solidaridad*

desde abajo (pp. 51–69). UGT, Centro de Estudios Históricos.

**Martínez Martín, M. A. (1994).** Las sociedades de socorros mutuos en Guipúzcoa: 1880-1936. In S. Castillo (Ed.), *Solidaridad desde abajo* (pp. 155–175). UGT, Centros de Estudios Históricos.

**Marx, K. (1867/1984).** *El capital. Libro I.* Barcelona: Orbis, S.A.

**Marx, K., & Engels, F. (1848/1975).** Manifiesto del partido comunista. In *Obras escogidas de Marx y Engels. Tomo I* (pp. 13–55). Madrid: Fundamentos.

**McFadzean, J. (2008).** *The Co-operators - A History of the Fenwick Weavers.* East Ayrshire North Communities Federation Ltd.

**Medina-Albadalejo, F. J., & Pujol-Andreu, J. (2014).** Cooperativas de consumo y niveles de vida, España 1865-1939: Una primera aproximación. In *Scripta Nova. Revista Electrónica de Geografía y Ciencias Sociales: Vol. XVIII* (Issue 494, p. 5 mayo 2018). <http://revistes.ub.edu/index.php/ScriptaNova/article/view/15079>

**Meiksins Wood, E. (2021).** *El origen del capitalismo. Una mirada de largo plazo.* Madrid: Siglo XXI.

**Mladenatz, G. (1969).** *Historia de las doctrinas cooperativas.* Buenos Aires: Intercoop.

**Monzón Campos, J. L. (1989).** *Las cooperativas de trabajo asociado en la literatura económica y en los hechos.* Madrid: Ministerio de trabajo y seguridad social.

**Monzón Campos, J. L. (2003).** El cooperativismo en la historia de la literatura

## BIBLIOGRAFIA

económica. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 44, 9–31.

**Moreno Ruiz, R. (2000).** La Genesis Del Mutualismo Moderno En Europa. *REVESCO: revista de estudios cooperativos*, 72, 199-214.

**Olaya Morales, F. (1983).** *De la Revolución Industrial al Cooperativismo*. Madrid: Queimada.

**Ortiz de Orruño Legarda, J. M. (1994).** Las primeras sociedades de seguros mutuos en Alava (1847-1878). In S. Castillo (Ed.), *Solidaridad desde abajo* (pp. 145–154). UGT, Centros de Estudios Históricos.

**Polanyi, K. (1944/2016).** *La gran transformación: crítica del liberalismo económico*. Virus.

**Ralle, M. (1994).** La función de la protección mutualista en la construcción de una identidad obrera (1870-1910). In S. Castillo (Ed.), *Solidaridad desde abajo* (pp. 423–436). UGT, Centros de Estudios Históricos.

**Rivera Blanco, A. (1994).** Desarrollo y crisis del modelo de sociedad de socorros (Vitoria, 1849-1938). In S. Castillo (Ed.), *Solidaridad desde abajo* (pp. 135–144). UGT, Centros de Estudios Históricos.

**Rosanvallón, P. (2012).** *La sociedad de los iguales*. Barcelona: RBA.

**Sánchez de Madariaga, E. (1994).** De la "caridad fraternal" al socorro mutuo. Las Hermandades de Socorro de Madrid en el siglo XVIII. In S. Castillo (Ed.), *Solidaridad desde abajo*

(pp. 31–50). UGT, Centro de Estudios Históricos.

**Solà i Gussinyer, P. (1994).** El mutualismo contemporáneo en una sociedad industrial. Anotaciones sobre el caso catalán (1880-1939). In S. Castillo (Ed.), *Solidaridad desde abajo* (pp. 71–86). UGT, Dentro de Estudios Históricos.

**Solà i Gussinyer, P. (2003).** El mutualismo y su función social. Sinopsis histórica. *CIRIEC-España*, 44, 175–198.

**Thompson, E.P. (2019).** *Costumbres en común. Estudios sobre la cultura popular*. Madrid: Capitan Swing.

**Thompson, E. P. (1977).** *La formación histórica de la clase obrera 2*. Barcelona: Laia.

**Thompson, E. P. (1977).** *La formación histórica de la clase obrera 3*. Barcelona: Laia.

**Watkins, W. P. (1977).** *El movimiento cooperativo internacional*. Buenos Aires: Intercoop.

**Weber, M. (1905/1997).** *La ética protestante y el espíritu del capitalismo*. Barcelona: Península.

**Whiten, A., & Erdal, D. (2012).** The human socio-cognitive niche and its evolutionary origins. *Philosophical Transactions of the Royal Society B: Biological Sciences*, 367 (1599), 2119–2129.









Ohikoa da kooperatibismoaren sorreraren unea 1844an kokatzea, Rochdaleko esperientzia kooperatiboa abiatu zen garaian. Baina historiari begiratu azkar bat emanez gero, ideia hori zalantzan jartzeko zantzuak aurki daitezke.

XVIII. eta XIX. mendeetan zabalduz aroan aurkitzen dira kooperatibismoaren sorrera iturriak. Kooperatibismoaren jatorria eta izate arrazoia arakatzeko, beraz, zentzuzkoa dirudi industria kapitalismoaren garapenaren testuinguruan marrazten hasi ziren mugimenduetan eta ideietan arreta jartzea. Zehatz esateko, kooperatibismoaren iturriaren muina langile eta herri sektoreen inguruneetan ernaldutako antolaketa praktika eta ideia sistemetan aurkitzen da. Praktika eta ideia haiek, industria kapitalismoaren aurrean, babes egiturak ez ezik, gizarte berri baten idealaren ernamaina izan ziren. Bi bulkadaz elikaturik agertu zen langileen eta herri sektoreen mugimendu hasiberri hura: batetik, langile auzoetan elkar sostengatzeko, lan borroka garatzeko edota lana eta kontsumoa era kolektiboan antolatzeko eratu ziren elkartegintza praktikak, eta, bestetik, sozialista asoziazionista gisa ezagutu ziren erreformisten ideien eta esperimenduen hedapena.

Liburuxka honetan, kooperatibismoaren sustraiak arakatzeko asmoan, Industria Iraultzaren lehen aroan langile eta herri sektoreek garatu zituzten antolaketa eta elkartegintza moduetan jarriko dugu arreta.



Mondragon  
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia